

bizente
goikoetxea
Aramaioko musikari unibertsala
1854-1916

Josemari Velez de Mendizabal



► Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Alava
►



ARGITARATZAILEA • EDITA:

Arabako Foru Aldundia. Euskara, Kultura eta Kirol Saila
Diputación Foral de Álava. Departamento de Euskera, Cultura y Deporte
Aramaioko Udala

INPRIMATZAILEA • IMPRIME:

Arabako Foru Aldundiaren Moldiztegia
Imprenta de la Diputación Foral de Álava

© Josemari Velez de Mendizabal

LEGE GORDAILUA • DEPÓSITO LEGAL:
VI 000-2016

ISBN: 000-00-0000-000-0

Aurkibidea

Sarrera gisa	7
Datu biografikoak	9
Goikoetxearen musika, kritikarentzat	41
Goikoetxearen azken urteak	48
Honrando a un paisano	51
Manuel Lekuonaren poesia	63
Goikoetxearen jaiotzaren mendeurrenra. 1954	66
Goikoetxearen monumentua	72
Bizente Goikoetxea musikariaz, solasean	79
Argitaratutako musika lanak	89
Heriotzaren mendeurrenenko bertsoak	96
Bizente Goikoetxeari, bere heriotzaren mendeurrenean ...	98

Sarrera gisa

Aramaiok emandako seme-alabarik ezagunena dela esaten badugu ez gara oso oker ibiliko. Bai herrian eta baita kanpoan ere, Bizente Goikoetxea izenak goi mailako musikarekin lotzen du eta hala da, XIX-XX mendeetako europar musika sakroaren ezinbesteko erreferentea baita aramaioarra. Eta Europa diodanean ez nabil gehiegikeriatan. Kontinenteko kritikak laudorioz hartu zuen bere garaian Goikoetxearen obra eta gaur ere musika sakroaren kontzertuetan segitzen da programatzen honen lanak, gaurkotasuna dute-naren seinalea, alegia.

Bizente Goikoetxea aramaioar petoa izan zen, jaioterria beti bihotzean eraman zuena. Goikoetxearen bihotzak, ordea, pairatu behar izan zuen sor-terriaren berarenganako jarrera ezkorra. Eta Aramaiotik alde egin behar izan zuen bere herrikide askoren ulertu ezinak eraginda. Ez zen, ez, oso harreman goxoa bien artean garatutakoa, nahiz eta –aurreratu behar da– ezin dakioke Bizenteri arrazoiaren muina lepora, zeharka jasan baitzituen erasoak. Baino errealtitatea da hil arte ez ziola Goikoetxeari behar bezalako miresmenik agertu Aramaioko herriak.

Asko eta ongi idatzi da Goikoetxeaz eta beraren gaineko bibliografia za-bala dugu. Orain, irakurleak esku artean daukan liburua argitaratzen da, musikari aramaioarraren heriotzatik ehun urte betetzen direnean. Liburu honek duen nolakotasuna da, ordea, Aramaiotik idatzia dela, Goikoetxearen jaioterritik, aramaioar guztien baitatik mundura, alegia, Aramaioko herria identifikatuta sentitzen baita bere semearen izen eta izanarekin.

Aramaioko semea izan zen Bizente Goikoetxea. Europa osora zabaldu zuen bere musika. Eta bidezkoa da aramaioarraren izena eta izana bere herrikideei hurbiltzea. Goikoetxeari egin dakiokeen omenaldirik onena da.

Datu biografikoak

Bizente Goikoetxea Errasti Aramaion jaio zen 1854ko apirilaren 5ean. Bere gurasoak Ignazio Goikoetxea Usaola eta Josefa Errasti Zubizarreta izan ziren. Aita otxandioarra zen; ama, berriz, Aramaioko Azkoaga auzoko Zua-zua baserrikoa. Aitaren bigarren ezkontza zen eta bikoteak lau seme-alaba izan zituen: Angela, Bizente, Jakoba eta Luzia. Bizentek beste lau anaia-arrebaorde eduki zituen aitaren lehen ezkontzakoak¹.

Aramaioko abade izandako Fidel Ibargutxi Garaigordobilek² Bizente Goikoetxearen biografiarako datu ugari eman zituen “Tesoro Sacro Musical” aldizkarirako, 1954an³ idatzitako artikulu mamitsuan, eta besteak beste zioen:

“Su padre, Ignacio, fue el personaje central de la historia del valle de Aramayona, en la segunda mitad del siglo pasado. Inteligente, lanzado y tenaz, la Parroquia y el Municipio encontraron en él a su mejor colaborador. Él fue quien sacó a la Parroquia de muchos de los apuros económicos en los que se encontraba por lo reciente de la construcción de su nuevo templo, él quien en nombre del pueblo acudía al Obispado a formular peticiones o manifestar sus observaciones; él fue el alma mater de la inmemorial Cofradía de los Nobles Hijosdalgo de Andramari de Ibabe⁴; él, en fin, quien asumió como Alcalde las riendas del Municipio en varias épocas, y sobre todo en las difíciles de la Guerra Civil”

Ibargutxik dioen moduan, Ignazio Goikoetxeak betebehar garrantzitsuak eta arriskutsuak izan zituen udaletxean. Alkate ordea zen bigarren karlis-

1 Jesus Mari Elejalderen “Ayer y hoy del Valle de Aramaiona” liburuan irakurtzen denez, Ignazio alargun zegoenean haurdun utzi zuen Bizenteren ama, eta erditzean hil zen umea. Jarraian ezkondu ziren Ignazio eta Josefa.

2 Gero Lekeitioko parrokiaren organo jolea izan zen

3 “Revista bimestral hispano americana de música sacra” (3.1954)

4 Ordurako izena aldatua zuen, kideen sarrera libre baitzen. /Para entonces ya había cambiado de nombre, al ser libre la entrada.

tadaren hasieran eta udal aktak berari buruzko aipamenez beteta daude. Gerrako gora beherak modu zuzenean pairatu zituen eta 1872ko uztailaren 4an dimisioa azaldu zuen alkatearekin eta gainerako zinegotziekin batera udal osoko bilkuran. Idatzi nuen jazoera hartaz:

“El Alcalde Presidente dio cuenta de una comunicación del nombrado comandante general carlista de Alava, Velasco, en la que se conmina con la pena de ser pasados por las armas las autoridades que den parte a las del Gobierno de la Nación, de la llegada y salida y demás movimientos de las partidas carlistas.

Tras ello resultó una mesurada discusión, manifestando todos los señores concejales las críticas y apuradas circunstancias en que se encontraban para cumplir con las rigurosas órdenes de las fuerzas armadas y autoridades del Gobierno, imposibles de cumplir y expuestas sus propias vidas, y por lo mismo acordaron e hicieron dimisión de sus respectivos cargos, y para ponerlo en conocimiento del señor Gobernador civil de esta provincia se extendió la correspondiente instancia fundamentadísima, para que se les admita la referida dimisión”⁵.

Gobernadoreak, ordea, ez zien onartu. Hala ere, 1873ko urtarrilean bileretara joateari utzi zioten Jose Leanizbarrutia alkateak eta Ignazio Goikoetxeak eta udalak salatu egin zituen biak gobernadorearen aurrean. Ondorioz, alkatea Oñatira aldatu zen bizitzera eta Goikoetxeari egokitu zitzaion alkatezta. Alkatearen kargu uzteak ez bide zion mesede handirik ekarri Ignaziori eta bien arteko harremana gaiztotu egin zen.

Baina horren aurretik gertatu zen ere, liberalek eskatu ziotela Santa Cruz apaiza Aramaiotik agertzen zenean, besterik gabe mandatari baten bidez Gasteizko agintariei abisatzea. Horrela egin zuen Goikoetxeak, baina guerrillariaren tropiek mandataria –emakume bat– atzman eta fusilatu egin zuten Krutzetan. Goikoetxeari gerrako epaia egin zioten Udaletxean eta heriotzara kondenatzera zihozuela, Aramaioko abadeen erreguz, 5.000 errealetako saria ordaintzeaz kommutatu zitzaion zigor nagusia. Noren diruaz ordaindu? Bizente semeak hartu zuen bere gain kopuru hora lortzeko

⁵ <http://txemax3.blogspot.com.es/2012/10/udal-taldearen-dimisioa-aramaion.html>

Goikoetxearen jaiotetxea
Casa natal de Goikoetxea



ardura eta Bruno Etxebarriak, hau da bere lagun handia zen Sandalioren aitak utzitakoarekin atera ahal izan zuen Bizentek berea kartzelatik.

Aramaioko plaza nagusian lantegi bat zeukan Ignaziok, batez ere zaldi-burdineria fabrikatzeko, eta ejertzitorako egiten zuen lan asko. Bi armadatarako esango nuke, bigarren karlistadaren zurrubiloak disgustu ugari eman baitzikion Bizenteren aitari eta, zeharka, Bizenteri berari ere. Tailertxo horrezaz gain, Ignaziok ostatu bat ireki zuen bere etxean bertan, batez ere Aramaioko Bainu Etxera zetozentzat. Ikusiko den bezala, aitaren negozioek eta batez ere sortzailearen jokaerak eraginda, urte latzak biziko ditu Bizentek Aramaion, 1883an herritik alde egitea erabaki zuen arte.

Bizentek Aramaion bertan egin zituen bere lehen ikasketak, hezkuntza orokorreko eta musikalak. Herriko Benigno Aristegi izan zen gaztearen lehen musika irakaslea eta musikako bideetatik aurrera egiteko animatu zuena. Fidel Ibargutxik idatzi zuen, Arabako hiriburuan batxilerra 1867-1872 urteetan ikasten ari zen bitartean, Goikoetxeak Mateo Moraza euskal foruzalearen etxeko pianoan egiten zituela praktikak.

Musika ez ezik euskal dantzak ere zituen Bizentek gustuko, eta 1868ko maiatzean Aramaion Arabako Batzar Nagusien batzarra egin zenean multilak dantzatu egin zuen agintarien aurrean. Itxura denez, hain ondo egin zuen non handik gutxira Gasteizera deitu zuten Isabel II erreginarentzat ere dantza erakuspen bat egin zezan.

Aramaioko Arexola auzoko abadeak eman zizkion, bestalde, batxilergoko lehen urteetako klaseak baina Gasteizen amaitu zuen. Behin batxilergoa gainditua eta Oñatiako Unibertsitatean Zuzenbidea ikastera zihoala piztu zen bigarren karlistada eta karlistekin aritza tokatu zitzaison. Aramaioko bertoko intendentzia lanetan ihardun zuen. Lan horrek makina bat buruhauste ekarri zizkion Bizenteri, epe ertainean herrikide askorekiko arazo pertsonalak bihurtuko zirenak. Karlistentzako bonoen trukeko janari-erreki-samenduak, gerra amaitzean bono hartzaleentzako galerak izan ziren eta horrek faktura pasatu zion Bizenteri.

Dena den, gerra garai hura Sabas Amilburu herriko organo jolearekin harremanak estutzeko aukera aproposa izan zuen eta harekin ikasi zuen Bach, Chopin, Liszt eta goi mailako beste musikariren obrak interpretatzen. Sabasi laguntzen zion Aramaioko umeei musika irakasten eta batez ere haiiek ahotsaren emisioko teknika zorroztzen saiatu zen. Parrokiako abadeak ere izan zituen ikasle eta herriko abesbatza berrantolatu zuen. Auzoetara Sabas Amilburuk egin beharreko irteeretan laguntzen zion Bizentek eta modu bereziz gozatzen bide zuen Ibabeko Andra Mari Kofradiaren jai egunetan. Amilbururen etxetik baselizara eraman ohi zen armonioan bere dohainak erakusten zituen gazteak, sekula ahaztuko ez dituen saioetan. Horren testigantza ematen du ondokoak: Valladoliden konposatutako bere Hiru Ahotsetako Salvea-ren kopia bat Aramaiora igoり zuen euskaraz idatzitako eskaintza batekin: “Ibabeko Andra Marirentzat”

Aramaioko adiskideen artean Bizentek gehien maite zuena Sandalio Etxebarria izan zen eta bi lagun minak ostera Valladoliden elkartuko ziren handik zenbait urtetara, Sandaliok Gaztelako hiriburu hartan gozotegi bat

Aramaioko Udaletxea

Ayuntamiento
de Aramaio



eratu baitzuen. Hain zuzen, Sandaliok Valladolidera Angela bere arreba txikia eraman zuen berarekin bizitzera eta hirukoteak ordu eder asko eman zituen elkarrekin hiri hartan. Ziurrenik, behin baino gehiago komentatu zuten, gaztetxoak zirela Aramaion behin Bizentek Sandaliori gura barik emandako disgustua, Bizenterentzat are handiagoa bilakatu zena.

Gertatu zen, Fidel Ibargutxik 1950 inguruan Angela Etxebarriari entzundakoaren arabera, jai igande batean bi lagunek elizara joan behar zutela baina Bizenteren bultzadatxo baten ondorioz lokatzetara erori zen Sandalio. Elizara bakarrik iritsi zen Bizente, Tenioletako Ofizioa hasten ari zenean. Sabas Amilburuk aurki igarri zuen mutikoaren aurpegi iluna eta animoak emateko Ofizioko lehen arrangura (lamentazioa) abestea eskatu zion, Cogitavit Dominus deritzana. Hain tristeziaz beterik kantatu zuen, non interpretazioa sakon grabatu zuen bere gogoan eta handik urtetara bere Lamentatio: Cogitavit Dominus konposaketa ospetsuan islatu zuen maisuki Goikoetxeak une mingots hura.

Bizente musikan aurrerapen nabarmenak egiten ari zen arren, bere aitari ez zion bat ere graziarik egiten musikarako semearen joerak. Beharbada gustatzen ez zitzaina zen musika erlijiosorako semearen zaletasuna. Ibargutxik kontatzen du ondoko anekdota, Goikoetxearen ostatuan gerta-tua:

“Un soldado de Vitoria, compañero de Vicente en Intendencia militar, entretenía a la concurrencia de la fonda ejecutando al piano composiciones alegres. De vez en cuando Vicente le relevaba en su puesto, pero su padre no podía verle.


Quítate de ahí –le decía. Y volviéndose al vitoriano añadía:

Siéntese Vd, Luis, y toque algo que valga la pena. Este hijo mío no sabe tocar más que entierros.”

Gerra amaitu zen eta Bizentek Oñatiko Unibertsitatean Zuzenbideko karrera (Legeak) burutu zuen. Fede publikoan aritzeko gaitasun ziurtagiria, bikain notarekin, 1877ko ekainaren 20an lortu zuen. Bere titulu berriarekin Gasteizen hasi zen lanean, Jose Zumarraga notarioarekin. Baino Bizenteren aitak, itxura denez, beste helburu bat zeukan semearentzat eta Aramaion gertatu bide zenak Bizenteren etorkizuna markatu zuen betiko. Fidel Ibargutxik kontatzen du goian aipatutako bere artikuluan:

“La guerra había arruinado a don Ignacio. Además, era ya viejo; tenía que buscar una solución a su situación. Su más ardiente deseo era tener a Vicente a su lado para que le consolase y le llevase a la vez la administración de la fonda y del taller. Se le ocurrió al fin colocar a Vicente como Secretario del Ayuntamiento de Aramayona; la cosa no parecía ofrecer dificultades. No pretendía gran cosa para un hombre que tenía terminada la carrera de Leyes. Como desde hacía muchos años era Procurador Provincial y representaba a la Hermandad de Aramayona en la Diputación Provincial de Álava, consiguió que ésta exigiese del Ayuntamiento de Aramayona el cese de don Julián Luco en su cargo de Secretario, por ser a la vez Notario del mismo.

A Luco se le daba la opción de seguir de Secretario y renunciar a la Notaría o la de renunciar a la Secretaría y seguir de Notario. En cualquiera de los dos casos le sustituiría Vicente, en opinión de don Ignacio, ya



Karlistak Ibabeko Andra Marira igotzen
Los carlistas subiendo a Andra Mari de Ibabe
(Becerro de Bengoaren grabatua)

que estaba en su mano obtener el título de Notario. Luco optó por seguir con su Notaría y quedó vacante la plaza de Secretario.

Vicente presentó su instancia, pero tuvo un contrincante en Agustín Avendibar. Este estaba muy lejos de tener talla suficiente para presentarse como rival de Goicoechea, que reunía a sus espléndidas carreras la bondad de su corazón universalmente reconocida, pero iba a pesar mucho contra él la antipatía que su padre en su nerviosismo de los últimos años había acumulado contra sí. Por una parte, a pesar de su buena voluntad se había visto obligado a exigir del pueblo gran cantidad de víveres que quedaron sin pagar al resolverse la contienda con la derrota de los que los habían consumido; por otra parte, sus apuros económicos le habían impulsado a exigir al Ayuntamiento la indemnización correspondiente a la multa que por cumplir los deberes le impuso el Cura Santa Cruz. Ignacio había dado muchos disgustos al Ayuntamiento, acusándole repetidas veces ante la Diputación. Esta resolvía siempre a su favor, pero

sus triunfos le resultaron caros. La bondad y competencia de Vicente no llegaban a contrapesar el cúmulo de resentimientos que había entre los Concejales contra su familia.

Se saca a votación entre los Concejales la concesión de la plaza de Secretario. Hay varios empates; el pueblo está apasionado por el resultado, la mayoría es favorable a Goicoechea, pero al fin el voto de calidad del Alcalde decide la elección de Avendibar y la derrota de Goicoechea. Esto es lo que se saca de la lectura del acta de esta borrascosa sesión municipal. El acta calla el importante dato de que en realidad el triunfo correspondía a Goicoechea, ya que los partidarios de Avendibar se habían valido de la astucia para desplazar del pueblo e impedir que tomara parte en la elección el concejal más incondicional de Goicoechea.”

Baina aurkeztu al zen Bizente Goikoetxea udal idazkaritzara Fidel Ibargutxik dioen moduan?

Aramaioko abade izandakoaren adierazpenak bere osotasunean har-teza zail samar gertatu zitzaidan Aramaioko udal aktak irakurri ondoren. Egiaztatu ahal izan nuen Ignazio Goikoetxeak arazoak izan zituela bere herrikide zinegotziekin eta, Ibargutxik bezala, neuk ere ondorioztatu nituen 1880 inguru hartan ez zegoela bat ere giro Bizenteren aita eta korporazioaren artean.

Nolanahi ere, ez dut baiezktatu ahal izan, adibidez, Bizente Goikoetxeak bere burua aurkeztu zuenik udal idazkariararen kargurako. Zergatik idatzi zuen Ibargutxik Juan Marcos Abendivar eta Bizente Goikoetxearen arteko lehia izan zela udal idazkaritzarako? Non irakurri zuen? Nik beste istorio bat daukat eta ahaleginduko naiz ahalik eta argiagoa izaten.

Lehen apuntea 1879ko azaroaren 9an aurkitu dut, alkatea Patrizio Altube zela. Udal aktan irakurtzen da:

“Se dio cuenta con lectura de una solicitud de veinte de octubre último, suscrita por Don Ignacio Goicoechea y otros siete vecinos de este valle en la que exponen que hace ya bastante tiempo que la municipalidad se sirve de un secretario interino, que refrenda todos sus actos oficiales y se ocupa en absoluto de las funciones que a cargo tan importante en la vida de los pueblos incumbe; pero aun cuando no hay funcionamiento racional para que dicho empleo sea regido con el carácter de interini-

dad en que hoy se sirve, que dicho sea de paso, nunca da a las actas del Ayuntamiento la debida solemnidad, todavía pudiera prescindirse de ella aunque sin fundamento bastante, si quien ejerce interinamente dicha Secretaría estuviera dentro de las condiciones que las Leyes establecen; no sucede así toda vez que el Secretario interino Don Julián Luco⁶ que viene sirviendo dicho destino por más que reconoczamos en él los conocimientos necesarios para el caso, es a la vez Notario de este Valle cuya profesión desempeña.

El artículo 123 de la Ley Orgánica municipal de 2 de octubre de 1877 dispone en el número 2º que no pueden ser secretarios de Ayuntamiento en propiedad ni interinamente los Notarios y Escribanos en tanto que desempeñen las funciones propias de estos cargos...

... Suplican que en cumplimiento de lo que dispone el párrafo 2º del artículo 122 se sirva nombrar previo concurso un Secretario en propiedad para el Ayuntamiento de este Valle, comunicando oportunamente el nombramiento al Sr. Gobernador...

En su vista se manifestaron dos opiniones; una que en atención a que el Secretario Luco ejerce cumplidamente su cargo y está nombrado por el Ilustrísimo Sr. Gobernador Civil de la Provincia, el Ayuntamiento no debe ni puede destituirle y que, por tanto, siga en el ejercicio de su destino; y otra que según la Ley se verifique el nombramiento de dicho Secretario; y en su consecuencia se procedió a votación nominal que dio el resultado siguiente: Votaron en pro de la primera opinión el primer teniente de Alcalde D. Domingo Ibabe, los Regidores D. Francisco Aranguren, D. Ambrosio Zavala síndico, y D. Pedro Areitio y el Sr. Alcalde presidente. Votaron en pro de la segunda opinión el segundo Teniente de Alcalde D. Agustín Arana y los Regidores D. José Manuel Larrañaga, D. Valentín Larrañaga, D. Domingo Uribarren y D. José león Ormaechea.

Resultó empate. Se declaró urgente el asunto y se repitió la votación, con el mismo resultado Pero en virtud del voto del Sr. Presidente que es decisivo, quedó decretado que en atención a que el Secretario Luco ejerce cumplidamente su cargo y está nombrado por el Gobernador Civil

⁶ Julián Luco Etxebarria, Fulgencia Isabel Ruiz Samperiorekin zegoen ezkonduta. Bost seme-alaba izan zituzten Aramaion. Zaharrena, Demetrio, Arrasateko udal idazkaria izan zen, Miguel Madina-beitia ordezkatuz.

de la Provincia, el Ayuntamiento no debe ni puede destituirlo y que por lo mismo, continúe en el ejercicio de su destino.”

Bestalde, lehen ere komentatu dudan moduan, Ignazio Goikoetxearen erreskatearengatik ordaindutako 5.000 errealak Bruno Etxebarriarenengandik jaso zituen Bizenteren aitak. Eta erreskate saria udal aktibitatearen ondorioa zelakoan, Ignaziok Udalari kobrau nahi izan zizkion. 1880ko urriaren 31ko udal aktan irakurtzen da:

“En virtud del oficio de 7 de Noviembre de 1876 la Excma. Diputación General de la Provincia ordena al Ayuntamiento de este Valle se paguen los 5.000 reales que en la época de la última guerra civil fueron extraídos al exponente por el Jefe de partida carlista D. Manuel Santa Cruz...”

Badirudi, udal aktatik irakurtzen denez 1877ko maiatzaren 20an Udalak 2.560 erreal ordaindu zizkiola eta egun hartan adostu zuela Goikoetxearekin gainerakoa, ahal bezain laster kitatzea. Ez bide zitzaison, beraz, Udalari ego-kia iruditu berriz ere 5.000 erreal erreklamatzea. Azkenik, 1881-82 biurteko aurrekontuetan jarri ziren 2.440 erreal Bizenteren aitari ordaintzeko.

Idazkariaren izendapenerako, berriz, Aramaioko udal agintariak, Patrizio Altube alkatea buru, 1882ko apirilaren 23an bildu ziren eta bertan honako puntuak ukitu ziren:

“1º Se dio cuenta con lectura de una comunicación de D. Julián Luco, vecino de este Valle, de fecha 19 del corriente, manifestándole su dimisión del cargo de Secretario de esta Corporación municipal, por convenirle así a sus intereses particulares; y ésta tiene en consideración, con consignación, no obstante, de hallarse sumamente reconocido de sus buenos servicios prestados a este Municipio, con la acertada dirección en tan delicado cargo.

2º Se dio cuenta de una solicitud de D. Juan Marcos de Abendivar y Abendivar, profesor de instrucción primaria y vecino de Mallavia, en la que suplica se le agracie en el nombramiento para la Secretaría de este Ayuntamiento; y por no haber conformidad sobre este nombramiento, se procedió a la votación que dio el siguiente resultado.”

Eta hemen segitzen du Fidel Ibargutxiren bertsiorako diferentziak. Alkateak aldeko botoa eman zuen, beste lau zinegotzik bezala. Bik beren botoa erreserbatu egin zuten eta batek idazkari kargua konkurtsoa ateratzea planteatu zuen. Beraz, gehiengoz, Abendivar jauna hautatu zuten idazkari. Baino...

Nori otu zitzaison Abendivar irakaslea idazkaritzarako proposatzea? Eta nola eraman zuten Aramaiora, botazioa egin aurretik? Dakusagun:

“Acto seguido se le llama al local de sesiones al nombrado Secretario Abendivar, y héchole saber su nombramiento, acepta gustoso, dando gracias a la Corporación.”

Hilabete bat geroago, maiatzaren 7an, eta alkatearen ausentziaz, ostera biltzen dira udal agintariak eta aurreko bilkuraren egon ez zen Leon Lasaga zinegotziak adierazi zuen Idazkariaren kargua betetzeko derrigorrezkoa zela publikoki iragartza. Denak ez ziren ados etorri baina azkenik zinegotziak planteatutakoa onartu zen, kargurako euskaldun batek lehentasuna izango zuela azpimarratuz. Hil berdinaren 28an Leon Lasagak udal idazkari-kargurako oinarriak eraman zituen osoko bilkurara. Ezinbesteko puntuetan, hautagaia euskalduna izatea, eta “que tenga concluida la carrera de Abogado o Notariado” Ordurako Bizente Goikoetxeak bazuen Notario titulua, 1881ean eskuratura.⁷

Oinarriak ez zituen onetsi Patrizio Altube alkateak baina zinegotziak gehiengoak baietta eman zuen. Alkateak iragarri zuen errekursoa jarriko zuela.

Eta horrela egin zuen. Urte bereko ekainaren 27an aurkeztu zuen kontrako idazkia Arabako gobernadore zibilaren aurrean eta horrek handik urtebete batera indarrik gabe utzi zuen udal batzak onartutakoa. Ondorioz, idazkariak ez zuen abokatu edo notario izan behar. Eta konkurtso publikoa egin zen. Deialditik ateratakoaz erabakitzeko, 1883ko ekainaren 16an berriro bildu ziren udal zinegotziak. Udal aktak dio:

“Y resultando tan solo D. Juan Marcos de Abendivar y Abendivar, aunque hubo carta con relación al mismo destino de D. Andrés Saenz, vecino de

7 “Música Sacro-hispana” (1916. Octubre)

Samaniego, se acordó unánimemente nombrarle al primero para Secretario de este Ayuntamiento”

Ez da inon Bizente Goikoetxearen aipamenik egiten. Zer dela eta? Ziurrerenik, udal alkateak hasiera-hasieratik erakutsitako kontrako jarrera iksita, aita-semea atzera bota zirelako. Aurreko deskribapenaren arabera, egiaztatzen den bakarra da Ignazio Goikoetxearen jokaera aldrebestuak ez ziola bat ere mesederik egin Bizenteri. Bainaz ezin daiteke esan –frodatua ez dagoelako– etorkizuneko musikariak bere burua aurkeztu zuenik udal kargurako. Bizentek bazuen gaitasun eta titulazioa udal idazkari edota notarioa izateko. Aitak eragotzi zion bidea horietako karguren batera iristeko. Egin nahi zuenaren kontrakoa, hain justu.

Ondo pentsatua, ordea, aita nahastaile edukitzeari ... ez al zion onik ahalbidetu semeari? Zer gertatuko zen Bizente Goikoetxea Aramaioko udal funtzionario zintzoa bihurtu izan balitz? Egongo al nintzen lerro hauek idatzetan?

Lehen adierazi dut Bizentek Oñatioko ikasketak amaitu ondoren Gasteizera joan zela lanera eta Jose Zumarraga notarioarekin ihardun zuela. Hain justu, Ignazio Goikoetxeak Julian Luko Aramaioko notarioa udal idazkaritza kargutik kentzeko eskabidea Udaletxeen aurkeztu zuen unean, 1879ko azaroan, semea aipatu notario-bulegoan ari zen. Pentsatzeko da, beraz, Ignaziok beste xede batzuk zituela semearrentzat eta modu ez egokian gauzak nahastu zituela herrian. Zalantza da, kontrako jarrera hartaz jabetuta, Bizentek bere burua aurkeztu ote zuen. Bainaz zalantza argitzeak ez luke ondorioa aldatuko.

Beraz, Aramaioko herriak Bizente zigortu zuen, aitaren erruz. Hala ere, herriko semeak barne-barnean eramango zuen bizitza osoan bere jaioterrriarenaganako maitasuna. Eman al zen, aramaioarra herritik kanpo bizi izan zen bitarteko bien arteko armonia? Inondik ere ez! Eta horren seinalea da 1899an gertatutakoa. Urte hartan Aramaion Euskal Lore Jokoak ospatu ziren, Resurrección María de Azkue euskaltzale eta Goikoetxearen adiskide minaren eraginez. Bainaz goazen poliki-poliki:

Urte hartako alkatea Frantzisko Leanizbarrutia zen, han zuzen ere Bizenteren aitarekin batera Udaletxeen 1872an egon zen Jose Leanizbarrutiaren semea. Jose eta Ignazioren arteko harremana ez zen ondo amaitu, gorago ikusi dugun bezala. Auskalo ez ote zaion hari leporatu behar Bizente Goikoetxeari Euskal Lore Jokoetan gertatu zitzaina. Ez nuke ezertxo ere arriskatuko oso urrutti ez zela ibiliko baieztagatuko banu.

Resurrección María de Azkue



Gauza da Bizenteri eskatu zitzaiola, Azkueren bitartez, Lore Jokoetan izango zen Meza Nagusirako musika prestatzea. Ospakizuneko datak 1899ko irailaren 9 eta 10 izan ziren. Bigarrenerako, igandea, programatu zen Meza. Goikoetxeak oso pozik hartu zuen enkargua eta baita bete ere. Azpeitia eta Gasteizko abesbatzak kantatu behar zuten. Baino azken unean, Udalak aldatu zuen egitaraua eta Goikoetxearen lana baztertu zuten. Zergatik? Resurrección María Azkuek berak idatzitakoa da ondokoa:

“En lo referente a la Misa, los que formaban la comisión, si no han sido desacertados, al menos han demostrado poca aptitud para llevar a cabo su cometido. A ruegos y peticiones suplicaron a un ilustre hijo del pueblo compusiera una misa para esta fiestas; y después de hecha la misa, por intervención de uno que entiende más en yerbas sanatorias que en música, ni azpeitianos ni vitorianos vinieron a hacer escuchar dicha Misa. Un coro de Ochandiano cantó la de sí bemol de Gorriti.”⁸

⁸ “Aramaioko Lore Jokoak. Juegos Florales de Aramaio. 1899” (Pedro Uribarrena. Anunciación Iñigo de los Ríos. Eusko Ikaskuntza. Lankidetza. 1999)

Azkuek egundoko hasarrea hartu zuen Udalaren erabakiaz eta ospakizuna bertan behera uztear egon zen. Zeini zegokion Azkue, “yerbas sanatorias” aipatuz? Izan al zen garaiko botikarioa? Izango al zen medikua? Izango zena izanda ere, ezin dakioke Udalari bere errua txikitu. Suposatzeko da Goikoetxearen disgustua bere herritarren jokaera ikusita.

Zorte hobea izan zuten Irunen, 1903an, Lore Jokozen hurrengo hitzorduan, Bizente Goikoetxearen Salvea interpretatu baitzen, arrakasta handiz. Gauza bera gertatu zen 1911an, Seguran. Goikoetxea ez zen bere jaioterrian profeta izan, tamalez. Zehaz dezadan, gainera, Salvea Ibabeko Andra Miren omenez idatzi zuela.

Ene ustez, herriko semearenganako balorazio egokia Goikoetxea hil ostean piztu zen Aramaion, eta musikarienganako miresmena –askotan bezala– kanpoko eragileek agerrarazi zuten herritarren artean. Dakusagun: Bizenteren heriotzako urteko urrian ekitaldi handi bat izan zen Aramaion, eta besteari beste Migel Jauregi herrikide presbiteroak hitzaldi bat egin zuen, euskaraz. Bere hitzetatik ateratzen ditut ondoko hauek:

“Gaur, berriz, ikustean Goikoetxea dala Aramaio emon daben semerik biargiñ, saiatu, zintzo, sail, kementsu ta langileena, ta au autortzera guziok toki onetan alkartu garela, ai! ez naiz ondo izango biotzetiko zorion-agurra ta neure orduonekua berari emoten ezpadeutsat, erri onetan jaiotzea gertatu jakolako. Bai, zorionez ementxe jaio zan gaur txalotzen dogun eleizgizona, ta emen bertan bere gaztetasuneko urterik ederrenak igaro zituan: ikusiaz aramaiotarren ontasun ta onoidadeak, zirudiala lorarik lora or-emen dabillan erletxo arduratsua...”

... Aonegaitik Aramaio ta Goikoetxearen artian dagoan antz-irudi ta bardintasuna somatzea, esango deutsuet Aramaio dala ama, Goikoetxea semia: ama jaioterriari dagokiola egiazko amatasuna, ta semiari amaren izakerea artu, euki, zaindu, gorde ta edonoaz agertzen emotia.”

Nik ez nuke Jauregiren hitzaldi osoa sinatuko, zenbaitzuetan Aramaio ama beharrean amordearen paperean ibili baitzen. Goikoetxeak, aldiz, beti jokatu zuen semeari dagokion zintzotasunaz.

Samur ulertzen den moduan, udal idazkaritzarako auzi hartan jasan-dako porrotaren ondorioz Bizente ez zegoen egoerarik onenean Aramaion biziitzen jarraitzeko. Eta aukera etorri zitzaion herritik alde egiteko, Manuel

Valdesekin ezkonduztako arreba Angelaren bidez. Senar emaztea eta bi seme alaba –Julio eta Mari Nieves– Aramaiotik Lekeitiora joan ziren bizitzera eta 1883an bera ere haien etxera aldatzea erabaki zuen Bizentek.

Anekdota bitxi bat gertatu bide zitzaison Bizenteri etxez aldaketa hartan, Fidel Ibargutxik bere idazkian azaltzen duena. Itxura denez, Bizentek berarekin eraman zuen “Fiel” izeneko bere txakurra. Goiz batean txakurrak, herriminak eroanda, nonbait, Lekeitiotik Aramaiorainoko itzulera bidea egin zuen, bakarrik. Durango aldean aramaioar batek ikusi zuen “Fiel” gosez amorratuta eta lau hankak urratuta. Jaten eman ondoren txakurrak bideari berrekin zion, Aramaioraino. “Fiel” Aramaiok erakarrita itzuli zen, gorputzez. Bizentek, ordea, gogoz bakarrik egin hal izan zuen.

Lekeitio bihurtu zen, beraz, Goikoetxearen herri berria, baina bihotzean eraman zuen bere jaioterria eta aukera guztiak gutxi zitzartzion Aramaiori buruz mintzatzeko. Horren testigantza, Resurrección María de Azkue adiske de lekeitiar eta euskaltzaleak eman zuen. Sabin Salaberrik gogorazten digu:

“Azkue, sin conocer Aramaio, llegó a amarlo sólo por lo que le contaba Goikoetxea. En una de sus primeras incursiones en el campo de la literatura, no dudó en escoger como escenario el valle del que tantas veces le había hablado su amigo. “El primer año de mi ordenación sacerdotal, cuatro o cinco amigos publicamos en Bilbao un periodiquito que se llamaba “La Abeja”. En aquél periódico dio a conocer por primera vez Arana Goiri algunos sucesos antiguos de Bizcaya: las batallas de Gordejuela, Mungia, Padura u Ochandiano. Yo comencé una narracioncita amena, cuyo título era “Peru Matraka ta Pedranton”. Aquellos partos de mi ingenio habían vivido aquí mismo, entre vosotros, en Aramayona. Cuando mi amigo Vicente leyó aquel trabajito, me dijo estas palabras, estirándose el bigote con la mano izquierda: Pero, chico, esto no es Aramayona.”⁹

Bizente oso aukera bakanetan itzuli zen jaioterrira. Eta Aramaiok ez zuen jakin musikariaren maitasun zalantzagabea eskertzea. Baino hori ge-roago ikusiko dugu.

9 Euskonews & Media 143.zbk (2001/11/9-16)

Koinatuari laguntzen hasi zen Goikoetxea Lekeitio, lantegi baten kontabilitate liburuak eta arlo juridikoa eramatzen. Bestalde, hiri hartan giro musical interesgarria aurkitu zuen eta bertako musika kaperan hasi zen bere afizioari neurri garaiagoa ematen, Velasco, Zapiain, Kortabitarte, Telleria eta beste zenbait musikariekin batera. Aurki talde-buru izendatu zuten eta abesbatz harentzat konposatu zituen bere lehen obrak.

Aitak, bestalde, Aramaion segitzen zuen baina ostattua eta tайлerra itxi ondoren bera ere Lekeitiora aldatzea otu zitzzion. Ez zuen asmoa gauzatu, 1885eko urtarilean hil baitzen Aramaion bertan.

Gertaera latz hark, dolua eta oinazeaz batera, bere biziko aukera adierazi zion Bizenteri. Aita ez mintzearren urtetan barnean gorde zuen ametsa gauzatzeko atea ireki zitzzion. Aramaion berarengan loratutako asmoari hel ziezaiokeen, indarberritura: apaiz izateko bideari ekingo zion. Baina Aramaioko urte onetan ez bezala, ez zeukan dirurik eliz-karrera ikasteko, eta lanean segitu behar izan zuen, Lekeitio bere koinatuari kontabilitateko liburuak eramatzen. Hiru urte eman zituen horrela. Bitartean, Gasteizko Apaiztegi Kontzialarrean matrikula egin nahi izan zuen, aurrerik burututako ikasketak konbalidatzea eta Teologia kanpo ikasle gisa amaitzea eskatuz. Ez zioten onartu.

Eta Gasteizko bidea itxita ikusirik, Valladolidera joan zen, Aramaioko bainu etxera zetozenean goikoetxeatarren ostattuan lojatzen ziren Ruiz de Eguiluz senar-emaztearengana. Ez zeukaten seme-alabarik eta Bizentek eliz karrera egiteko asmoa azaldu zien bezain laster bikoteak esku zabalik hartu zuen aramaioarra eta gastuak beraiek ordainduko zizkiotela agindu zioten. Horrela, euren etxean biziko zen eta bertatik joango zen Apaiztegira. Musika karrera amaitzea ere egiluztarrek finantzatuko zioten.

Lekeitiotik Valladolidera

Zeru berrieta rako prestatuta, 1888ko irailaren 29an, Goikoetxeak Valladolideko bidea hartu zuen. Lekeitio uzten zuen sendia eta Azkue lagun han-dia, egun hartan bertan bere lehen meza eman zuena. Diotenez, data hartan ere Goikoetxeak bibotea kendu zuen. Aramaioko herriak 1916ko urriaren 22an Goikoetxearen oriomenez egin zen ekitaldian, honako hitzak entzun ziren, Venancio Azkunaga fraide agustinoak adierazita:



Valladolideko Apaiztegia XIX.ean
Seminario de Valladolid, XIX

“En una de las calles antiguas de Valladolid y frontera a la fachada posterior del Palacio Arzobispal se alza una casa solariega, sin grandes apariencias arquitectónicas pero de muy sólida construcción y confortables condiciones de vivienda. Habitaban dicha casa sus dueños D. Francisco Eguiluz (hoy difunto) y su distinguida esposa Dª Jacoba Vítores, matrimonio sin descendencia, consagrado a favorecer a cuantos necesitaran su protección o auxilio, distinguiéndose ambos esposos en su predilección por los vascongados.”

Oso nota onak atera zituen Bizentek Apaiztegian eta aldi berean Valladolideko Unibertsitatean Lege ikasketekin segitu zuen. Musikari ere eutsi ahal izan zion eta aurki zaletasun hark ospea ekarri zion hirian. Venancio Azkunaga agustinoaren berbak ditugu ondokoak, aipatu Aramaiko hitzaldian entzunda:

“Se reveló ante mí como músico un día festivo que invitado por él a subir al coro de no sé qué iglesia de Valladolid, nos unimos a los que formaban la capilla y le pidieron que dirigiera la misa, haciéndolo, por cierto magistralmente. Cantamos la misa de Hernández, tan en boga por entonces, como las de Calahorra, García y otros autores del mismo género, y queriendo yo sondar su opinión sobre estas composiciones musicales, hizo apreciaciones tan atinadas y discretas que comprendí que me hablaba un gran crítico y un gran maestro en música religiosa.”

Eta 1890ean Valladolideko Katedralaren Kapera Maisua kargurako auke-
ra agertu zitzzion, Wenceslao Fernandez ordura arteko titularraren heriotza
zela-eta. Kargurako oposaketa irabazteak dimentsio berri bat eman ziezaio-
keen Goikoetxearen jardunari. Eta ordura arte musika zaletasun moduan
hartu bazuen ere –bera artean ofizioz lege gizona zen– aurrerantzean profe-
sional gisa aritzearen ideiak gorputz hartu zuen Bizenteren baitan. Lehena-
go, ordea, bere burua jantzago ikusi nahi zuen, eta horretarako kontrapuntu
eta fuga ikastera joan zen Tolosara, Felipe Gorriti musikari ospetsuarekin.
Armonia lehenago ikasi zuen Gasteizen, Jose Maria Abad Eguzkiza San Vi-
cente parrokiako organo jolearekin.¹⁰

Nolako harremana izan zuen Goikoetxeak Gorritirekin? Hasteko esan
dezan, 1889ko ekainaren hasieran heldu zela Tolosara eta urte bereko
abendua bitartean ihardun zuela Gipuzkoako hiri hartan. Felipe Gorriti oso
musikari ospetsua zen garai hartan eta goi mailako ikasleak izan zituen bere
zuzendaritzapean. Goikoetxeak Gorritiren etxean eta hiriko Santa Maria
eliza nagusian jaso zituen maisuaren ikasgaiak. Gorritiren garrantziaz idea
egiteko, kontuan eduki behar da, urte haietan bere aginduetara zeukala
hogeita bat irakasletako orkestra bat.¹¹

Gorritirengandik Goikoetxeak zer ikasi zuen zehazterik ez den arren,
eman diezaiogun hitza Nemesio Bello Portu ikerleari, bi musikarien arteko
lotura aztertu duena:

“He experimentado que existen momentos en los que Goicoechea aparece vinculado a su maestro Gorriti. Los primeros compases del O Cor Iesu a 3 voces iguales, orquesta y órgano de Goicoechea se sumergen en análogo clima armónico que los primeros compases del versículo Miserere para solos, coro y orquesta de Gorriti de 1879. Transmito esta experiencia porque he tocado el violín y he cantado de tenor en las citadas obras.

... Los dos compositores escribieron sus polifonías sobre el célebre gradual de la antigua liturgia In cena Domini del Jueves santo: Christus factus est. Los dos Christus y los dos Obediens señalan admirables afinidades de belleza y emoción.

10 Datu hori Jose Maria Olaizolak ematen du.

11 “Cuatro músicos en Tolosa” (Nemesio Bello Portu. RSBAP. 1986)

... Pero además sería necesario empaparse en el mundo estético de Gorriti, oyendo con calma y curiosidad, otras obras del Maestro de Capilla de Tolosa: la Misa en do mayor, la Salve en sol menor... y comparar desde dichas experiencias las obras de Goicoechea. Veríamos unos cables de emoción y de técnica que el compositor de Aramayona recibió en sus confidencias con su querido maestro Felipe Gorriti en Tolosa.”¹²

Gorritirekin ikasi behar zuena amaituta, Valladolidera itzuli zen eta opaketari aurre egin zion. Honela idatzi zuen azterketarako onarpen-idazkian:

“Vicente Goicoechea y Errasti, de 36 años de edad, natural de Aramayona (Álava) Diócesis de Vitoria, vecino de Lequeitio (Vizcaya) en la misma Diócesis, y alumno externo de este seminario Metropolitano (Valladolid)...”¹³

Azterketak 1890eko irailean izan ziren eta beste hiru hautagairen kontra lehiatu behar izan zuen: Federico Olmeda, Burgosko katedralaren organo jole eta oso musikari ospetsua izango zena, Manuel Herrera, Leongo Kapera Maisua, eta Balbin Belsué, Osmako organo jolea. Epai mahaia, Tomas Eleizgaray Valladolideko Katedraleko organo joleak, Jose Alfonso Fuentes Segoviako Katedralaren organo joleak eta Felipe Gorriti Tolosako konposagileak osatu zuten. Frogak atez barne eta kanpoan ere burutu ziren, lehiakideek hogeita lau ordutan obra bat konposatu eta exekutatu behar izan baitzuten Katedralean.

Azterketak egin ziren eta bertan Goikoetxearen izaera patxadatsuaren ideia ematen duen anekdota ere gertatu zen. Azkuek kontatu zuen, hain zuzen ere 1916ko urriaren 22an Aramaion izandako omenaldian:

“Konkursu artan Gorriti zan tribunalaren buru. Maisu nai zuten aiek bakoitzak beraren lana (zortzi bozeturako Fuga bat) agertu zutenean, aramayoarrak berarena garbitan jartzean, gorengo lerroa utsik utzi zuen. Utsune ura ikusirik, erizleak Gorritiri esan zioten: “Guk ere zuk bezela uste degu auxe dala onena, bainan lerro bat utzi du bete gabe,... ta”

12 “Cuatro músicos en Tolosa” (Nemesio Bello Portu. RSBAP. 1986)

13 “Sociedad española de musicología” (Pedro Aizpurua. Urtarrila-Ekaina. 1992)

Valladolideko Musika
Kaperako kideak,
Goikoetxea erdian eserita
Miembros de la Capilla
de Música de Valladolid,
con Goikoetxea en
el medio sentado



Tolosako musikalaria karobia bezin sutsua zan ta “neronek berealaxe ekarriko det lerro aztu ori” esanta bizkor joan zan Goikoetxearen etxera. Sartu zaneko galduetu zion “Or duzu zirriborroa?” Erakutsi zionean, eskutik papera kendu eta arrapaladan eskaileretatik bera egin zuen, bere epaimai kideei “llerro ziztrin ura” erakustera. Tolosarra sutan zegoen bitartean, zuen errikidea lasai ageri zen. Orixe zen bere izaera”.¹⁴

Epaileek honako erabakia hartu eta sinatu zuten:

*“El Tribunal propone para el desempeño de dicho cargo a D. Vicente Goicoechea, haciendo a V.I unipersonal la propuesta. Para ello se funda en la superioridad de conocimientos que el expresado Sr. Goicoechea ha demostrado en todos los ejercicios de la oposición sobre sus dignos copositores (sin incluir los de canto llano) y su singular cualidad de poseer dulce y melodiosa voz de Tenor.”*¹⁵

Garailea Bizente Goikoetxea izan zen, beraz. Eta Kapera Maisuaren kargua hartu ahal izateko, diakono egin behar izan zuten. Beraz, 1890eko abenduaren 18an hasi zen lan berrian, Katedraleko Tomas Eleizgaray organo joleak sarrera egin ziolarik. Goikoetxea poliki-poliki ordena sakratuak jasotzen joan zen, presbiteradotzara helduz. Juan Soldevilla Tarazonako gotzai-

14 “Musica Sacro-hispana” (Azkue. 1916)

15 “Sociedad española de musicología” (Pedro Aizpurua. Urtarrila-Ekaina. 1992)

nak apaiztu zuen Valladolideko Santa Teresa komentuan, 1891eko irailaren 19an.¹⁶

Lehen meza Lekeition eman zuen, zeremoniako hizlaria Resurrección María Azkue izan zelarik. Apaiztu eta zenbait egun geroago Aramaiora hurbildu zen bere gurasoen aldeko meza eskaintzeko eta abade izan nahi baina lehenago hil zen Gabriel anaiordearen hilobian otoitz egiteko.

Handik gutxira Valladoliden topo egin zuen Sandalio Etxebarriarekin, haurtzaroko adiskide mina, hiri hartan gozotegi bat ireki zuena. Gerra gaia Ignazio bere aita heriotza zigorretik salbatzeko Bruno Etxebarriak utzitako dirua gogoratuz, Katedralaren eliz-onurarengatik zegokion etxebizi-tza utzi zion Bizentek Sandaliori. Berak bazuen nahikoa Egiluz senar-emaztearenarekin. Hori bai, Sandaliorenean gela bat libre geratuko zen, bertan Bizentek katedraleko tipleei solfeo eta kantua irakasteko. Bi adiskideak ez ziren gehiago bananduko eta maiz ikusten zuten elkar. Zer esanik ez, gehienetan Aramaio jaioterria izaten zuten hizpide.

Aramaioko agintarien aldetik jaso zuen trataera txarra gaindituz, Goikoetxeak ez zuen inoiz bere sorterria ahaztu. Kapera Maisu gisa irabazitako zituen lehen sosak Aramaiko ospitalerako izan ziren. Jose Maria Olaizolak, Goikoetxea hurbildik ezagutu zuena, diosku Aramaiko parrokiako organo jole eta haurtzaroko musika irakasleari Valladolidetik igorritako partitura baten buruan honela idatzi zuela Kapera Maisuak, eskaintza gisa:

“A Don Sabas de Amilburu, como un recuerdo afectuoso para Vd. y en testimonio de cariño a mi pueblo... no puedo enviarle cosa más curiosa que esta copia del responsorio del egregio maestro sevillano del siglo XVI Cristóbal de Morales, que tantas veces he cantado siendo niño en el Cementerio de esa Parroquia después de las Vísperas de Animas, y que tantos afectos despierta en mí siempre que se ejecuta en esta Catedral. Cuando lo repitan ustedes, acuérdense de mí y sobre todo rueguen a Dios por el eterno descanso de mis padres (RIP) Su amigo de siempre, Vicente Goicoechea, Valladolid, mayo de 1895.”¹⁷

16 Juan Bautista Varela “Real Academia de Bellas Artes de la Purísima Concepción” erakundearen boletinean 2002an “Semblanza de Vicente Goicoechea” tituluarekin idatzitako artikuluko datuak.

17 Jose Maria Olaizola. “Madurez artística y espiritual de Vicente Goicoechea en Valladolid” Musica Sacro-Hispana (1954ko ekaina)

Musika Kaperaren zuzendaritzan oso modu xumeantzen aritu zen beti Goikoetxea, nahiz eta batzuetan arazoak sortu zitzaizkion kide batzuekin. Baino Bizentek bere izaera baketsu eta erakargarriarekin gainditzen zituen. Dena den, Kapera Maisu kargutik baino buruhauste gehiago etorri zitzaizkion, batez ere, orkestratik eta haurren musika ikastetxetik. Valladolideko Kapera Maisua izan den Pedro Aizpurua andoindarrak dioenez, lehen hamar urteetan Goikoetxeak asko sufritu zuen orkestraren jarrerarekin.

Sabin Salaberri aramaioarrak zabal eta sakon ikertu du Goikoetxearen musika ibilbidea, eta “Vicente Goicoechea y Errasti. Renovador de la música sagrada” bere lan interesgarrian¹⁸ dioen moduan, Goikoetxeak oposaketak irabazi zituenean musika erlijiosoa oso une txarretatik igarotzen ari zen eliza katolikoan, maldan beherako prozesu ilunean. Musika egilerik importanteen muzin egiten zioten eta musika sakroa erdipurdizko konposagileen eskuetan zegoen. Elizetan interpretatzen zen kantua ere gustu txarrekoa eta kalitate eskasekoa zen. Salaberrik segitzen du idazten, aipatu artikuluau:

“Las oposiciones de 1890 son decisivas en la vida de Goicoechea pero su bagaje técnico era insuficiente. Su escritura contaba con hallazgos importantes, pero su sintaxis era desigual e imprecisa. El Padre Otaño afirma que nadie escribía entonces como él. Pero aún estaba en período de aprendizaje y no se libraba de la influencia ambiente que con tanto ahínco trató de combatir. La preparación de las oposiciones le obligó a un estudio sistemático de la técnica, a una depuración de su estilo, a un conocimiento profundo de los polifonistas clásicos.”

Lan eta lan aritu zen aurreneko urte haitan. Valladolideko Katedralaren kabiloari obra mordoa bidali zion: 1894an Meza labur bat, Eguberrietako Maitinen zortzi erresponsortorio, Christus factus est, Alma Redemptoris Mater eta Tu Bethlehem Judae Gabon eguneko kalendarakoa. Kabiloak zoriondu egin zuen, lan itunaz behartuta zegoen baino lan gehiago bidaltzeagatik. Gauza bera gertatu zen 1895ean.

Katedraletik kanpo aritu zen lehen aldiz 1896ko maiatzaren 4an izan zen, Jose Zorrilla Valladolideko poetaren gozpuzkinen tokiz aldaketa zela-eta

18 Scriptorium Victoriano (31.1984)

hiri harten eratutako musika emanaldi handi batean. Calderón Antzokiaren orkestra titularra, Pinciano Abesbatza, hiriko ikasle euskaldunen abesbatza, salmistak, Toledoko Katedralaren Mendibil tenorea eta beste artista batzuk zuzendu zituen Goikoetxeak egun harten San Benito elizan.

Apaitzaitegiko irakasle bezala ekin zion 1904-1905 ikasturtean, Gregorioa irakatsiz, eta baita solfeoa ere. Horrela aritu zen, 1916ra arte. Garai hartako bere bi ikasle sonatu izan ziren Nemesio Otaño eta Gaspar Arabalaza, Zamorako Kapera Maisua izango zena. Otañori buruz zabal ari gara liburu honetan, baina gogora dezagun, besteak beste, Madrileko Musika Kontserbatorioko zuzendaria izan zela, 1940-51 aldian.

Jose Maria Olaizola, Bilboko Katedralaren Kapera Maisu izatera helduko zena, Goikoetxearen ikaslea izan zen gazte denboran Valladolideko katedraleko tiple bezala eta bizitza osoan harreman estua izan zuen aramaioarra-rekin. Berari zor dizkiogu ondoko lerroak, hain zuzen 1922an Euskal Esnalak elkarreka eratutako hitzaldi sorta batean eskainiak eta erakundearen aldizkarian jasota¹⁹:

“1904 edo 5garren urtean asi zan Goikoetxea bere abesti bikañak agertzen, eta garai artan, nai ta naiez, asko izan ziran bere abestien etsai; bada orduan (eta orain ere bai Eleiz askotan) etziran entzuten Garcia Hernandez, Pinilla eta beste onelako musikalarienak besterik; eta beragatik, belarri aieri, pasodoble ta mazurka Eleizan entzuten oituak zeudenai, Goikoetxearen musika politonistena bezein garratza eta makala iruditzen zaiete.”

Jose Maria Olaizolak aipatu aldizkarian segitzen du:

“Entzun ba: Ingliterran, Frantzian, Italian, Alemanian eta beste Europako Eleiz nagusi askotan abesten dira Goikoetxearen musika ederrak. Amerikako alderdi askotan ere bai. Errromako Casimiri, De Santi eta beste abeslari talde buru guztiak Goikoetxearrak dira. Mundu guztiko musikalari omentsuena abestu oi dituzte, eta aien artian guretarra, Aramaiokua, bakarrik ikusiko dezute geienian.

19 Itzaldiak. Irugarren saila. (Martin eta Menaren etxea. 1924)

Palestinian ere, ostegun eta ostiral santu arratsaldean Jesus ona ilda lurperatu zuten lekuau bertan jasotako Eleiz nagusian, Goikoetxearen Miserere eta Christus Factus entzuten dira: oiek omen dira arakotxe onduen egiñak, samurrenak, eztitsuenak, zerutsuenak.

Beretarrak gera nire ustez otzenak, Ez da ori negargarria?"

Goikoetxeak bazuen, beraz, Valladolideko maisu kapera titulua eta auke-
ra paregabea –baina baita erantzukizun handia ere– agertu zitzaion, berak
amesten zuen musika sakroa sortzeko. Elizetan abesten eta jotzen zen mu-
sikaren kontra zegoen, eta giro musical hura hankaz gora jarri behar zela-
koan zegoen. Eta Europako musika berritzalea ikertzeari lotzen zaio buru
belarri. Konposagilerik importanteen obrak lortzen ditu bere biblioteka
musikalerako: Palestrina, Victoria... Eta keinu adierazgarri batean, Julio
Valdes Goikoetxea bere loba Ratisbonara²⁰ bidali zuen, Haberl eta Haller
maisu ospetsuekin ikas zezan. Gertu dago musika sakroari dimensio berri
bat emateko, eta ez du ahaleginik aurreztuko. Polifoniako aditu hoherenen
obrak goitik behera ezagutzen eta menderatzen ditu.

Valladolideko katedralean, poliki-poliki, aldatzen joan zen errepetorioa
Goikoetxearen eskutik. Zaila zitzaion hamarkadetako joera dekadenteari
buelta ematea, baina ez zuen amorerik eman, Kabildoaren joera aldekoa ez
bazuen ere. Nemesio Otaño jesuitak jakinarazi zuen ondoko datua, 1895eko
giroa azaleratuz, eta Goikoetxearen beraren idazki batetik jasoa:

*"En este período de cinco años próximamente se han ejecutado, además
de las obras que venían formando el repertorio de esta Capilla, tal vez
en más de 40 años, otras variadas e importantes, así de los grandes au-
tores del siglo XVI, Morales, Palestrina, Guerrero, Victoria, como de los
modernos Eslava, Gounod y otros..."*

Baina ez bide ziren asko horien obrak interpretatzen zitzuten abesbatzak.
Horregatik aramaioarrak oso garrantzitsutzat jotzen du kleroaren musika
prestakuntza eta Apaizgaitegiko arlo horren ardura hartzen du bere gain,
Schola Cantorum sortuz eta Gregorianoa eta Polifonia irakatsiz. Bestalde

20 Alemaniako Ratisbona sortu zuen Franz Haberlek musika sakro katolikoaren lehen eskola 1874an.

Valladolideko Unibertsitatearen ikasleekin lan egin zuen eta bertako euskaldunekin abesbatza bat osatu zuen. Talde horrek emanaldi arrakastatsua izan zuen 1907ko San Prudentzio egunean, Valladolideko Musika Sakroaren I Kongresuaren itxiera ekitaldian.²¹

Zenbait aldiz aipatu dudan Jose Maria Olaizolak idatzi zuen behin Bizente Goikoetxeak euskal erroko abestietan ere oinarritu zela bere musika idazteko orduan. Irakur diezaiogun:

“Goikoetxea ere joango etzan bada gure abesti kutunen baten bila? Beti izan zan gure soñu zarren zalia. Azkuengandik entzun zuanian Euskalerriko kantu guztiak bildutzeko asmo zintzoa, berotzearren, erakutsi zizkion Aramaiko bi, samur samurrak; bata “Atzia mutzia perolipan” eta bestea “Labiru-logura bai ganadu zaina.”

Bein, udako bakazio edo opor egunetako batian, Aramaiko menditxo baten tontorrera bakar bakarrik zijuela, aiziak entzun erazi zion inguruko basetxe aldetik zetorren eta sasi arteko arros-usai goxoa zabaltzen zuan abestitxo bat.

Bere bidetik irten eta juaten da basetxe aldera: sukalde zarrian sarturik, arkitzen du amonatxua su onduan, seaska zabutzen oñakin, eta ilobatxuak lo artu zezan kantari:

*Lo, lo, lo egizu aurtxo txikia
Zu zera erregintxo lili zuria.
Lo, lo, lo...!
Ekarriko dizut jostallu ederra
Zeu bezalakua, non arkitu baña?*

Eresi onek eta gregoriotarrak alkarren antz aundia dute eta noski amonatxuak Elizan ikasi eta bere aingerutxoari kantatzeko gordeko zuan. Abesti laburtxo onekin egin zuan bere Miserere guztia”

21 Datu hauiek eta gehiago Sabin Salaberriren Scriptorium Victoriano (31.1984)-tik ateratutu dirut.

Olaizolak aurreko baieztapenetan Resurrección María de Azkueren esanetan oinarrituko zen, lekeitiarrak 1916ko urriaren 22ko ospakizunean honela mintzatu baitzen, Bizente Goikoetxearen Aramaioko jaiotetxeko bal-koitik:

“... Zuen erritarrak etzuen izan ez gibel beaztunik, ez biotzean bekaitzikan, besteon bati egiten zitzaitzkioten txaloak etzuen izurterritzen. Hamaika musikalari gaztek eskerronez oroituko ditu Goikoetxeak emandako bozgarri ta burubide onak. Euskalerriko soñu zarrak biltzeko asmoa erakutsi nionean, ni arterako alaitu ta berotzeko, emengotxe bi kantatxoren asiera eman zidan. Aurren artekoa da bata: Atsia-mutsia perolipan; bestea, beizain artekoa: Labiru-logura bai ganaduzaina. Aramayora eldu nintza-nean osotu nituen berak erdizka irakatsitako bertsio auek.”

ITZULPENA (Azkuerena) Vuestro paisano no sintió hiel en las entrañas ni envidia en el corazón. Los aplausos que se tributaban a un compañero no le acogojaban. ¡Cuántos músicos jóvenes recordarán con agradocimiento las enhorabuenas y alientos recibidos por Goicoechea! Cuando yo le manifesté mis planes de colecciónar los viejos cantares del País Vasco, a fin de animarme y enardecerme para que los emprendiera, me dio el comienzo de dos cantarcitos de aquí. El primero es cantar de niños: “Atsia, mutsia, perolipan”; el segundo, de los pastores de vacas: “Labiru-logure bat ganaduzaina”. Cuando llegué a Aramayona, completé estas piececitas que él me había enseñado a medias.”

Aramaioko abadeak bere jaioterria salgai ez zuela garbi geratzen ari da eta horren lekukotasuna ematen duen beste detailetxo bat aipatu nahi dut. Bere obren arteko bat da Loreil abestija titulatu zuena. Ez dakigu noiz konposatu zuen baina ondoko datuarengatik ondoriozta daiteke behin apaiztu ondoren egin zuela. Gauza da Bilbon izandako musika lehiaketa batera aurkeztu zuela, “Ibarra tar B. Jauparia” izenordearekin, eta saritu egin zioten. “Ibarra tar B. Jauparia” horretan “Ibarrako seme Bizente, Abadea” irakurtzen delakoan nago.

Bizente Goikoetxearen izena musika erlijiosoaren zirkuluetan ezagun egiten hasi zen. Bere obrek Pio X Aita Santuak eragingo duen erreformari aurrea hartu zioten. Gero eta konfiantza handiagoa zeukan bere buruan eta

Aramaio



musika sakroaren barruko iraultza pizten ari zela baiezta liteke. Salaberrik esaten digu²²:

“Entre 1902 y 1904 compuso sus obras más populares, las que más fama le han dado: Oremus pro Pontífice que más tarde transformará en su popularísimo Ave María, el salmo Credidi conocido en su versión del cántico Benedictus; su célebre Misa en honor de la Inmaculada Concepción; el grandioso salmo Miserere y el sentido responsorio Christus factus est. También en este período escribe la Nona aunque la retocó y modificó más tarde.”

Eliza katolikoaren urte haietako buru nagusia –Leon XIII doktrina sozialeko Aita Santua– hil zen eta Pio X hautatu zuten. Aita Santu berriaren

22 Scriptorium Victoriense (31.1984)-

Pio X



lehen dokumentu publikoa Motu Proprio izenekoa izan zen, 1903ko azaroaren 22an aldarrikatua, eta bertan musika sakroari buruzko alegatu egiten zuen, erabateko aldaketa ezarriz, gregoriano eta polifoniaren aldeko deiarekin. Hain zuen ere, Bizente Goikoetxea 1890etik prestatzen ari zen bidea eskatzen ari zen Pio X. Aurreratu egin zitzaien, beraz, aramaioarra elizaren goi agintaritzatik markatutako arauei. Horrek are handiagoa egin zuen Goikoetxearen ospea eta Valladolid bilakatu zen espanyiar elizaren mugimendu berritzailearen abiapuntua.

Bizenterekin Bizente Arregi sinfonista eta opera egilea aritu zen lanean²³. Eta horiengana musikari gazteak iritsi ziren: Nemesio Otaño, Julio Valdes, Jose Maria Olaizola, Gaspar Arabaolaza eta abar. Baita Frantzisko Perez de Viñaspre eta Jose Maria Virgala Bizenteren adiskideak ere.

Goikoetxeak eta Nemesio Otañok, Cos y Macho artzapezpikuaren babesarekin, “Edicto y Reglamentos sobre Música Sagrada” dokumentua argitaratu zuten 1905ean. Pio X.aren Motu Proprio-a aurrera eraman ahal izateko arauak ematen zitzuten, apaizgaien artean musika heziketa egokiaren bila. Halaber, organo berrien –errromantikoak– ekoizpena aldarrikatzen zen dokumentuan, ordura arteko barrokoen ordez. Elizetako abesbatzen

²³ Fidel Ibargutxik bere idazlanean dioenez, opera zalea zen Bizente eta aurre palko bat zeukan erre-serbatuta opera emanaldietarako Valladolideko Caldeon antzokian, bere sutontziz eta guzti.

interpretaziorako hobeto egokitzen ziren berriak. Horren harira esan daiteke, 1902an Valladolideko organoa aldatzea erabaki zela, eta Aquilino Amezua euskalduna izan zen aukeratua berria egiteko, 1904ko ekainean entregatuko zuena.²⁴

Goikoetxea eta Otañoren eragin eta indarrez Musika Sakratuaren Lehen Kongresua eratu zen Valladoliden, 1907ko apirilaren 26-28 bitartean. Euskal musikari ugarik hartu zuen parte. Otaño jesuita izan zen Kongresuaren zuzendaria baina bere ondoan izan zuen bileraren egiazko motore eta eragilea: Goikoetxea.

“A este Congreso acudieron los músicos más destacados del panorama del momento: Ignacio Fernández Eleizgaray, el Padre Luis Villalba, el benedictino Casiano Rojo, Vicente Ripollés, Federico Olmeda y otros muchos, aparte de la junta organizadora, encabezada por el maestro Goicoechea, Otaño, el organista Milagros, cantores y músicos de la catedral puseiana... Goicoechea era el presidente de la comisión encargada de las ejecuciones musicales del Congreso.”²⁵

Kongresu harten ipini zen oinarria Valladoliden garatzen ari zen musika irakaskintza estatu osora hedatzeko. Eta “Musica sacro hispana” aldizkaria sortu zen –izena Goikoetxearen ekarpena da– lehenik Valladoliden eta gero Bilbon eta Gasteizen argitaratua. Goikoetxeak barne-barnean eraman zuen beti aldizkari hura, nahiz eta berak ez zuen inoiz artikulurik idatzi. Aldizkaria zuzendu eta bideratu zuen maisuki eta edukinen goi kalitateaz arduratu zen beti.

Valladolideko Kongresuaren ostean Bizente Goikoetxea bere ekarpen intelectualaren emaria moteltzen joan zen. Bere karrera burutua zelakoan zegoen eta erreleborako lekukoa gazteen esku uzteko ordua zela iruditu zitzaison. Ez zuen protagonismo gehiagorik nahi. Nahiz eta Sevilla eta Bartzelonako hurrengo Kongresuetan parte hartu zuen modu aktiboan, apurka apurka itzalera erretiratu zen. Osasunez ere ez zebilen ondo eta nahiago izan zuen aitzindaritza ordurako izena eginda zeukaten bere ikasleengana igarotzea.

24 Juan Luis Sáiz Virumbrales (Organaria. 2012)

25 Jose Ignacio Palacios (“Aportaciones de Aquilino Amezua a la organería de Castilla León” Nassarre, 29.2013)

“Música Sacro Hispana” aldizkaria
Revista “Música Sacro Hispana”



Ostera Sabin Salaberrik eskaintzen dizkigu datuak:

“De su inspiración van brotando la Salve Regina en honor de Andra Mari de Ibabe, diversas Misas a capella para Adviento y Cuaresma, la versión definitiva de la Nona para el oficio de la Ascensión y diversos motetes. En plena madurez personal y artística vuelve sus ojos hacia Juan Sebastián Bach, cuya influencia es notoria en el Te Deum compuesto para la consagración episcopal de su amigo Manuel de Castro. De sus últimos años son también la lamentación Cogitavit Dominus y la Misa de Requiem.”

Goikoetxea ez zen bat ere arrotz Europan egiten ari zen musikarako. Nemesio Bello Portuk idatzi zuen:

“Aclaremos algo sobre el asombro que Parsifal produjo en la aguda sensibilidad de Goicoechea. Francisco Pérez de Viñaspre y Vicente Goicoechea oyeron Parsifal y el compositor de Aramayona hizo este comentario a Viñaspre: “Patxi, ¡qué horizontes!”

Goikoetxearen ikasle izandako Jose Maria Olaizolak ere ondoko aipame-na egin zuen, aramaioarraren obraren dramatismoa azpimarratuz:

*“A este dramatismo que late en las obras de Goicoechea se referían sin duda los maestros de Ratisbona cuando su ilustre sobrino don Julio Valdés y Goicoechea, presbítero, eligió para la prueba de dirección la Misa en honor de la Inmaculada de su tío. Al terminar, todos los maestros, con el mayor entusiasmo y unanimidad más absoluta, le decían:
“Esto es moruno, aquí hay sangre árabe y sangre hirviente; esto no cansa.”*

Dena den, eta Jose Maria Olaizolaren aurreko baieztapenak ondokoekin kontraesanean daudela eman daitekeen arren, Olaizolak berak ez dio odol arabiarrari Goikoetxearen musikaren bikaintasuna egozten, eta ikasle ohiak halako deskribapena egiten du maisuaren musika konposatzeko jarreraz:

*“Tuve la suerte feliz de verle muchas veces componer; pero no se me olvidará jamás el recuerdo de su figura hierática, como la de un serafín con las manos sobre el teclado del armonio, repitiendo muchas veces el obediens y el comentario de las voces al barítono y al bajo en el quod est super omne nomen del Christus factus est. Si queremos adentrarnos un poco más en la personalidad artística de Vicente Goicoechea, veremos que ella está enraizada en su corazón y en su piedad. Como Fray Angélico, Goicoechea oraba **belaunikaturik, bekokiya makurtuta**, de rodillas, con la frente humillada, antes de empezar a componer. Era el corazón intesamente piadoso de Goicoechea quien latía en sus maravillosas composiciones.”*

Irudi hieratikoa aipatu du Olaizolak eta gehitu nahi dut Goikoetxearen deskribapen fisikoa ere egiten digula bere hitzaldi haietako batean, eta publikapen berdinean argitaratua:

“Zazpi oin bazan luze, argiak bere begi gozoak, irribarra bat beti bere ezpanetan, baña irribarra au etzan Beethoven baten bezelako gogorra eta zekena, baizik eztitsua, bere anima aundi eta ederraren irudi osoa... Itz gozo-gozo, mami-mami ... Arrokeriz betetzen bere biotza etzuan iñork ikusi; baña bai sarri bere utsegiteak aitortzen.”

Goikoetxearen musikari buruzko aipamen hauekin amaitzeko, dakusagun Sabin Salaberrik zioena, Arrasateko parrokian hamarkadatan abestu den Goikoetxearen Gabon kanta bati buruz.

Arrasateko parrokian “Argi berria heldu zaigu” titula genezakeen Gabon abestia gordetzen da. Arrazoiaren abiapuntua Sabin Salaberrik San Juan Bataiatzailearen artxiboan gordetzen diren musika partituren arteko zati batzuei eskainitako tratamenduan daukagu. Sabini galdetu nion partitura horren nondik norakoaz:

“Con la Kalenda para la Vigilia de Navidad de 1894, los seis responsorios de Navidad, (Beata Dei genitrix, Santa et immaculata, Hodie nobis coelorum Rex, Hodie nobis de coelo, Verbum caro y Beata viscera) para voces y orquesta, que Goikoetxea compuso entre 1891 y 1893, forman una especie de hermoso oratorio.

El P. Nemesio Otaño adaptó el responsorio Beata viscera como villancico para voces y órgano, que gustó entre los coros de Euskal Herria, muchos de los cuales lo acogieron en sus repertorios. Pero sólo se han podido recuperar partes de la obra, no la partitura completa. En el archivo de la parroquia de San Juan Bautista de Arrasate-Mondragón se conservan separadas las partes de órgano y de voces con texto en euskara, con la particularidad de que la de órgano y algunas voces están en la tonalidad de Sol y otras en La. En el archivo Eresbil de Rentería se guardan, a su vez, partes separadas de voces, con texto en castellano y tonalidad de La; pero no se encuentra la parte instrumental.

La recuperación de Gabon Abestia es el primer intento de reunir el conjunto de las partituras originales, que Goikoetxea compuso para un Oratorio de Navidad que nunca llegó a completar de forma definitiva.”²⁶

26 <http://txemax3.blogspot.com.es/2015/12/argi-berria-heldu-zaigu-goikoetxearen.html>

Goikoetxearen musika, kritikarentzat

Goikoetxearen obrak txalo beroz hartu zituzten aditurek lehen unetik, bai estatuan eta baita nazioartean ere. Zenbat eta ezagunagoa egiten ari zen aramaioarraren musika gero eta harrera hobea egiten zitzaison haren ekarpenari. Hona hemen, iritzi batzuk:

“La crítica de todos los países está conforme en que las obras del Maestro Goicoechea son dignas de toda alabanza y en ellas se encuentra todo lo que la música religiosa exige.”²⁷

“No sé que se haya escrito todavía una Salve más sencilla y más hermosa que ésta que nos acaba de ofrecer el maestro Goicoechea.”²⁸

“El Miserere de Goicoechea es de un efecto colosal; ejecutado como aquí, basta por sí solo para hacer célebre a su autor.”²⁹

“El Miserere de Goicoechea es la obra más sólida y expresiva que en estos años, en su género, se ha escrito.”³⁰

“El gran maestro Jacinto Manzanares decía que el Te Deum es la obra religiosa más importante que se ha escrito hasta el presente en el mundo... y con cuánta razón el violinista Manén, tan celebrado universalmente

27 “Música Sacro Hispana” (1909 azaroa)

28 Musica Sacro-Hispana (1909ko abendua)

29 Musica Sacro-Hispana (1910eko maiatza) “Semana Santa de Vitoria, en la S.I Catedral”

30 Musica Sacro-Hispana (1913ko otsaila)

dice de la Misa de la Inmaculada Concepción, que es la única Misa que le ha convencido.”³¹

“Es el jefe indiscutible de la joven, gloriosa escuela española de música sagrada... los jóvenes le consideramos nuestro jefe y nuestro maestro, porque en él aprendimos lo antiguo y lo moderno... es nuestro jefe espiritual en arte; en nuestro interior lo hemos erigido como maestro al estudiar sus obras.”³²

“Quizás la más indiscutible y desde luego una de las más grandes composiciones de la música religiosa española desde la Edad de Oro hasta nuestros días es esta del Miserere y su complemento el Christus factus del llorado maestro D. Vicente Goicoechea... Y lo es, sobre todo, por su belleza y más aún por ese íntimo sentimiento, ese profundo misticismo que desciende en linea recta del patriarca de la música española el abuelense Tomás Luis de Victoria... ”


... Los barítonos primero en desnuda y atrevida monodia y todo el coro contestándoles, ponen el más glorioso epífono del quod est a esta soberana creación del genio de Goicoechea. Obras de más atrevidas orientaciones y más atrevidos modernismos han aparecido posteriormente, siguiendo la ruta que el maestro señaló; pero entre las variaciones del gusto, las evoluciones del arte y las conquistas de las tácticas, siempre quedarán estas obras de Goicoechea como clásicas. Y su sentimiento profundo, su inspiración patética y su belleza forma aseguran perenne vitalidad.”³³

“Y junto a Victoria la constelación de los clásicos españoles:...pero dando un avance de siglos, la gigantesca figura de Vicente Goicoechea. ¿Conoce suficientemente España a quien la crítica extranjera saludaba como a “jefe de la joven escuela de música sagrada española”? ¿Conoce ese Jeru-

31 Jose Maria Olaizola. “Madurez artística y espiritual de Vicente Goicoechea en Valladolid” Musica Sacro-Hispana (1954ko ekaina)

32 Nemesio Otaño. El maestro Goicoechea (Música Sacro-Hispana. 1915eko apirila)

33 J. Artezo (Salamankako Katedralaren kalongea) (“El Miserere y Christus factus de V. Goicoechea”. El Correo de Cádiz Año XII Número 3999 - 1920 marzo 27)



Goikoetxearen sinadura bere partitura batean
Firma de Goikoetxea en una de sus partituras

salem de la lamentación Cogitavit, donde los bajos sostienen tenazmente el fondo en el que se apoyan tenores y tiples para saltar hasta la bóveda en imploración congojosa? No en vano sus obras las compuso Goicoechea en Valladolid, frente a la patética imaginería de la escuela castellana. De ella se le ha pegado el equilibrio, la seriedad, la grandiosidad. Porque cuando escribe el Christus o el Miserere su pluma suena con el golpe dolorido y sangrante de la gubia de Juni o de Gregorio Fernández. Cada versículo del Miserere es una pieza maestra pentagramada con trozos de corazón davídico. No he oído en su género nada tan fuerte y tan místico como ese canto. ¡Si será el Miserere que no descifró Bécquer, donde las notas son huesos cubiertos de carne, lumbre inextinguible, violencia, dulzura, resignación, abismamiento en el costado de Cristo!"³⁴

"Y qué decir de la relación entre Gorriti, Goicoechea y Wagner? El Padre Otaño presenta a Goicoechea en 1930 con nuevas riquezas en su personalidad, en su técnica y en los positivos influjos que recibió. Dice Otaño: "el Ave Verum y el Adoro te devote son exquisitos modelos de su primera manera Gounodiana. El Ave María, obra de transición a un nuevo género, de ambiente moderno, es la cristalización mejor realizada del estilo de Goicoechea, cálido de inspiración, lírico a ratos, elegante y perfecto de formas, con base armónica, sonora, plena.

³⁴ Rey (Ritmo revista musical ilustrada Ritmo - Año XV Número 176 - 1944 mayo)

*... Dentro del espíritu wagneriano se ha concebido el Christus factus est, el gran Miserere, la Lamentación y el Oficio de Difuntos. Y, continúa Otaño: "Pero Wagner está sedito, mas no imitado. Goicoechea no esconde sus devociones, pero las hace suyas, y en sus preocupaciones de transformación ya piensa en un género de recitados armónicos, especie de homofonía coral mística; y se eleva por los triples coros de Parsifal, hasta buscar en grandiosas tramas las posibilidades de una polifonía moderna."*³⁵

*"La Coral Canticum Novum de Cádiz cuenta con una obra considerada por los expertos como una verdadera joya musical. Se trata del Miserere en Fa que Vicente Goicoechea escribiera para el Cristo de la Buena Muerte de Cádiz... La obra es austera como corresponde al Salmo L; pero de gran belleza dentro de esa misma austerdad y perfectamente construida.... Las notas del Miserere de la Buena Muerte sonaron en 2001 en Praga, en 2002 en Lisboa, en 2.004 en Varsovia y Cracovia, en 2006 en Brujas..."*³⁶

*"El más importante campo de actuación fue sin embargo el de la creación. Compuso obras al margen de los gustos en boga y siguiendo las pautas de la polifonía clásica. Entre 1902 y 1904 vieron la luz sus obras más celebradas: Oremus pro Pontífice, que más tarde transformaría en su popular Ave María; el salmo Credidi, conocido en su versión del cántico Benedictus; su célebre Misa en honor de la Inmaculada Concepción; el grandioso salmo Miserere y el sentido responsorio Christus factus est... Las claves estilísticas de la música de Goicoechea se resumen, según Virgili Blanquet, en "la profundidad de ideas, el interés armónico de algunos pasajes y los efectos grandiosos que obtiene en contraste con la simplicidad de recursos empleados y su lenguaje más bien tradicional."*³⁷

35 "Cuatro músicos en Tolosa" (Nemesio Bello Portu. RSBAP. 1986)

36 Laura Triviño Cabrera ("Periférica" Revista para el análisis de la cultura y el territorio. N° 8, diciembre de 2007. Vicerrectorado de extensión Universitaria. Cádiz)

37 In hora sexta ("Vicente Goicoechea: la labor de un precursor" www.inhorasexta.com/index.html)

“Christus factus est del presbítero Goicoechea. Musicalmente espléndida, se caracteriza por un ritmo que declama el texto y por melodías que recuerdan el dolor.”³⁸

“Es un milagro que (en este disco, O CRUX: Spanish Choral Music (s. XIX), editado en Londres) alguien haya buceado para buscar estas perlas, en las que no hay iberias, ni amores brujos, ni zarzuelas, aunque algunos nombres sean tan conocidos como Albéniz, Granados o Falla. Predomina un cierto halo italianizante, normal en la península por aquellos años, (Vives, Sor...); alguna referencia a Wagner (Hilarión Eslava); y maravillas como la música llena de cromatismos de Vicente Goicoechea, cura vasco al que habría que reivindicar ya de una vez, como él hizo con la música religiosa preparando los tiempos del Motu Proprio del Papa Pio X, desde su puesto de Valladolid. Sus obras, plenas de espiritualidad y de una intensidad musical excepcional, son quizá lo mejor del disco.”³⁹

“Si retomamos, tras el paréntesis del siglo XVII y gran parte del XVIII, la historia del motete Ave María, éstas son algunas realizaciones del clasicismo y del romanticismo: Wolfgang Amadeus Mozart, Felix Mendelssohn, Ferenz Liszt, Giuseppe Verdi... Johannes Brahms, Gabriel Fauré, Vicente Goicoechea...”⁴⁰

38 “XXI Festival de Arte Sacro” (2011)

39 Benserade (La Gran Música española) (<https://benserade.wordpress.com/category/los-compositores/vicente-goicoechea/>)

40 Ricardo Rodríguez. “Dirección de Coro” (2013)

Goikoetxearen azken urteak

Goikoetxearen obrek dibulgazio handia izan zuten Europa osoan, lehen unetik. Pio X.aren Motu Proprio-ren ostean obra erlijioso berritzaileen hedapena areagotu zen eta modu bizian ageri zen aramaioarra aitzindaritza hartan. Azpimarratzeko da Lazcano y Mar argitaratzaile bilbotarraren kasua. Enpresa hori izan zen “Musica Sacro Hispanaren” aldizkariaren editzailea publikapenaren egoitza Bilbora aldatu zenean. Partituren argitaratzeari ere lotu zitzzion enpresa eta aurrenak Bizente Goikoetxearen Ave Maria, Missa pro Dominicis Adventus et Quadragesimae, Christus factus est eta Miserere mei Deus ospetsuak izan ziren 1908an, korronte polifoniko berriaren erakusgarri gisa⁴¹.

Bere osasun egoerak kezkatzen zuen Goikoetxea eta 1911an baimena eman zioten etxean geratzeko eta 1913rako Erroman gestioak ari ziren egiten Goikoetxeari erretiroa emateko.

Dena den, Bizente Goikoetxea Real de las Bellas Artes de la Purísima Concepción elkartaren akademiko izendatu zuten 1911ko otsailaren 6an, eta berarekin batera sartu ziren beste zazpi musikariren laguntzarekin Akademiaren Musika Saila sortu zuen. Akademiatik Goikoetxeari enkargatu zitzzion Valladolideko lehen Musika Eskolako ikasketa plangintza prestatzea, 1905eko erret-dekreto baten arabera.

Osasunak bat ere laguntzen ez zionez gero Goikoetxeak Kapera Maisu izateari utzi behar izan zion 1915ean eta Katedralaren kabildoak kalonje izendatu zuen urte hartako martxoaren 4an.

Bizente Goikoetxea 1916ko apirilaren 9an hil zen Valladoliden. Hirurogeita bi urte zituen. Eliz barrutiko buletinak eman zuen heriotzaren berri:

“El ocho del presente mes entregó su alma al Señor con una muerte verdaderamente edificante, el Canónigo de la Iglesia Catedral D. Vicente Goicoechea. Una pertinaz y cruel dolencia le ha llevado al sepulcro...”

41 Jose Antonio Arana Martija (“La edición musical en Bilbao” ([Bidebarrieta](#) aldizkaria Bilbao. 1998)

Matxain kalea
Calle Matxain



Valladolid eta Espainiako kronikek heriotzaren berri eman zuten. Hona hemen Madrileko “La Acción” egunkariak zekarrena:

“Ha fallecido en Valladolid el muy ilustre señor don Vicente Goicoechea, canónigo de aquella Santa Iglesia Metropolitana. Más que por sus merecimientos y virtudes, que eran muchos, y cuyo elogio rechazaba su natural modestia, era conocido por su inspiración y talento musical, del que como brillantes muestras, quedan el soberbio Miserere cantado varios años en la Real Capilla de Madrid y en las basílicas del Santo Sepulcro de Jerusalén y de San Pedro del Vaticano: el Ave María y un Te deum que como prueba de agradecimiento dedicó al obispo de Jaca con motivo de su consagración.

Organizó el Congreso de Música Sagrada de Valladolid; tomó parte muy activa en los de Sevilla y Barcelona y fundó la notable revista “Música Sacra Hispana” mereciendo por los servicios prestados a la Iglesia que el cardenal Cos le nombrara Canónigo en 3 de marzo de 1915.”⁴²

Jose Maria Olaizaolaren berbak ditugu ondokoak, hain justu Bizente Goikoetxea ehortzi zuten eguneko gertaera bat azalduz.

42 “La Acción” (1916-04-12)

“En una tarde gris y triste volvíamos del cementerio llenos de pesadumbre porque habíamos dejado en él los restos mortales de nuestro gran Maestro. Llegamos al Seminario y fuimos al ensayo de música; silencio triste y profundo: alguien insinuó que se debía suprimir el ensayo. Por fin, convinimos en rezar un Pater Noster por su alma, después de cantar su Christus factus est y su Miserere. No hubo distracciones ni equivocaciones... Nos estaba dirigiendo él desde el cielo.”⁴³

Aramaiora ez zen Goikoetxearen heriotzaren berri aurki iritsi. Behintzat, hori ondorioztatzen da udal aktetatik, izan ere 1916ko apirilaren 9an eta 16an burututako bileretan ez zen ezertxo ere jaso gertaera ilun hartaz. Hilaren 23ko bilerara itxaron behar da lehen aipamenaz topo egiteko. Orduko alkatea Frantzisko Madina Gorostiza zen eta bilerako aktan irakurtzen da:

“Se dio cuenta de una moción del Sr. Presidente de esta Corporación y del Concejal D. José Ramón Cortabarria, proponiendo a la Corporación que en primer lugar se haga constar en acta el sentimiento de la misma por la muerte del benemérito finado D. Vicente de Goicoechea, trasladando el acuerdo a su familia, así como al Iltrmo. Cabildo de la catedral de Valladolid en donde el citado finado ejercía el ministerio sacerdotal como canónigo y que en segundo lugar se realice algún acto que perpetúe la memoria de tan esclarecido paisano.

El Ayuntamiento por unanimidad acordó aprobar la moción anterior y en su consecuencia acordó que a la calle de Mashain de esta población de Ibarra en que nació el finado D. Vicente Goicoechea, se le ponga “Calle de Goicoechea” y que se solicite de la familia una fotografía del interesado o del Cabildo de la catedral de Valladolid, para colocarla en la sala en donde esta Corporación celebra sus sesiones ordinarias, facultando a la Presidencia para que proporcione el letrero que ha de colocarse en la calle, y la ampliación de la fotografía.”

43 Jose Maria Olaizola. “Madurez artística y espiritual de Vicente Goicoechea en Valladolid” Musica Sacro-Hispana (1954ko ekaina)

Maiatzaren 30ean, berriz, aurreko erabaki bat aldatu egin zen, eta “Goikoetxea kalea”ren ordez, “Goikoetxearen Plaza” eskaintza adostu zen. Erabakia burutu ote zen zalantzak dira, geroago ikusiko dugun bezala.

Goikoetxea hil ondoren aramaioarraren gaineko albisteak musikaren zirkulu espezializatuetan korritu ziren abiadura handiz. Zenduaren bertuteak laudatzen ziren guztietañ. Zenbait bider aipatu izan den Fidel Ibargutxiren idazlanean irakurtzen da:

“Su testamento es un testimonio de su santidad. Amó a sus enemigos. Supo perdonarles y supo perdonar y pagar bien por mal a su pueblo... El primer dinero que ganó con sus composiciones lo mandó al hospital de Aramayona. En su testamento hizo un legado en dinero para la iglesia de su pueblo y dejó para ella sus recuerdos más íntimos: todos sus ornamentos sacerdotales, su cáliz, misal, vinajeras etc. Que eran de la mejor calidad. Yo he celebrado muchas veces con esos ornamentos, que sin discusión son los mejores de Aramayona y parece que me decían: ‘Aprende de los santos a amar a los que te han despreciado’ Téngase en cuenta que los principales enemigos de última hora de Goicoechea en Aramayona habían sido los sacerdotes, juntamente con las autoridades.”

Segura kardinal espainiarra Goikoetxearen kabildo kidea izan zen Valladoliden eta aramaioarraren heriotzaren ostean aitortu zuenez, gotzain izendatuta gero ere sarritan jotzen zuen harengana, ez bakarrik musika gaien gaineko laguntza eske baizik eta eliz kontu orokorrez ere, oso zabala baitzen Goikoetxearen jakinduria, eta emaile gisa beti orekatua agertu zen.

Norberto Almundoz euskalduna Sevillako katedralaren Kapera Maisu eta hiri hartako Musika Kontserbatorioko zuzendaria izan zen. Besteak beste, Nemesio Otañorekin ikasi zuen eta, beraz, Goikoetxearekin kontaktu zuzena izan ez bazuen ere aramaioarraren lanaz gehien zekien musikariaren bitartez bereganatu zituen haren ikasgaiak. Ondokoak Almundozen hitzak dira:

“Goicoechea no fue un compositor prolífico, como muchos colegas contemporáneos suyos. Las características de su música no le permiten extenderse en numerosas concepciones. En este aspecto existe pronunciada afinidad entre Goicoechea y Falla. Para ambos la inspiración es fruto de un trabajo recoleto y constante. Entre el vasco y el gaditano los pros y

los contras son ponderados en balanza de inframilésima sensibilidad. La concesión del placet a la obra supone un minucioso examen de conciencia, una acción de severa y escrupulosa autocritica.

*El egregio maestro clausuró su existencia musical con la composición de la Misa de Requiem, Requiem recoleto y espiritualizado, escrito con fervorosa y purísima intención clásica, de classicismo eminentemente goicoecheano. Recordando al viejo Verdi, que decía en su famosa carta a Hans von Bülow: "Vds. se sienten felices de ser hijos de Bach..." Nosotros decimos que tuvimos a un Victoria y a un Goicoechea."*⁴⁴

Zenbait aldiz aipatu dudan Venancio Azkunaga agustinoak honako hau idatzi zuen 1916an Goikoetxearen omenaldirako:

"Aún llevo grabada en el alma la impresión que recibí al oír el Miserere, el miércoles santo del presente año, en la Catedral de esta Corte. Hacía muy pocos días que el telégrafo, con su habitual laconismo, nos anunciaba la pérdida del gran maestro y lamentando la irreparable desgracia, acudí a la Catedral a oír una vez más los inspiradísimos acordes con que supo interpretar Goicoechea el salmo penitencial que implora las misericordias del Señor. Ejecutaba la composición la Capilla Isidorianas, a la que se unían otros valiosos elementos, y todos unidos parecían animados del mismo espíritu, para poner en la ejecución del Miserere todas sus energías, todo su cariño, sintiendo todos que terminara el salmo y más aún el que no podríamos volver a deleitarnos con nuevos frutos debidos a la rica inspiración y al genio portentoso del Maestro.

Dichosos los pueblos que engendran hijos como él y premian sus méritos, ensalzando su memoria y esculpiendo su nombre en piedras y mármoles, y que pueden decir a las generaciones venideras: "Aquí nació ese hombre que brilla con eternos fulgores en la historia preclara de nuestra raza."

44 Norberto Almundoz. "En torno al primer centenario del nacimiento del Maestro Vicente Goicoechea (1854.1916)" Musica Sacro-Hispana (1954ko ekaina)

Honrando a un paisano

Aramaioko Udaletxera 1916ko ekainean heldu zen aurreneko albistea, Bizente Goikoetxearen omenez egin nahi zen ekitaldia. Antolaketa talde bat osatu zen Gasteiz aldean, Mateo Mujika buru zelarik. Beste kideak Cristobal M. Soria, J.M. Virgala, Juan Aranburu, Paulino Mujika, Luis Usobiaga, Juan Vidarte, Mateo Alberdi eta Hilario Otaño musika argitaratzalea izan ziren.

Aramaioko Udal lehen unetik antolatzaleen esanetara jarri zen, egitarraua ahalik eta borobilena gerta zedin. Udal erabaki interesgarria izan zen, Bizente Goikoetxearen margo-irudi bat eskatzea Arrasateko Biteri Eskole-tako Luis Armengou marrazki irakasleari. Oso erretrato-egile ospetsua zen inguruetañ eta artistari hiru ehun pezeta ordaindu zitzaizkion.

Halaber, Udalak berrehun pezeta agindu zizkion omenaldiaren talde eratzaileari⁴⁵ Baino batzorde horri ez zitzaison nahikoa iruditu, udal ordez-kariak –Simon Landa idazkaria– aurreko batzar batean agindutakoa bost ehun zirela argudiatuz. Azkenik, berrehun eta berrogeita hamar izan ziren udal ekarpena, gehi zenbait eraikinen apainketa, suziriak eta abar ... Abar horretan eztabaida bitxiak piztu ziren. Dakusagun urriaren 15eko udal akta:

“... Por el Presidente y otros concejales se comunicó que el día ocho del actual se había personado en esta localidad D. Mateo Múgica, Presidente de la Comisión ejecutiva del homenaje a D. Vicente Goicoechea, manifestando que con motivo de concurrir a ese homenaje los Excmos. Señores Obispos y la Diputación de esta provincia, convenía hacer una comida decente, siendo la casa del Sr. Cura Párroco la apropiada para ello, señalando trece individuos para concurrir a ella entre los cuales se encontraba el Sr. Alcalde.

Pero éste le participó que no podría concurrir a dicha comida si no lo hacía toda la Corporación municipal, proponiéndose por dicho Sr. Múgica el que la citada comida sería costeada su mitad por este Ayuntamiento.

45 Irailaren 24ko akta



1916ko ekitaldiaren
antzolatzailak,
erdian eserita
Mateo Mujika.
Organizadores de
los actos de 1916,
sentado en el medio,
Mateo Mujika.


La Corporación acordó que ella satisfaría la mitad siempre que a la comida concurra toda la Corporación con el Secretario, Juez municipal y el que confeccionó el retrato, que hacen otros trece individuos, pues de lo contrario no pagaría cantidad alguna.”

“Honrando a un paisano”: horrela titulatzen zuen Gasteizko “El Imparcial” egunkariak, 1916ko urriaren 26an, lehen orri osoa betetzen zuen artikulua. Hil haren 22an Aramaion Bizente Goikoetxearen izena eta izana omentzeko burututako ekintzen gaineko zehazkizunak ematen zituen egunkariak, kronika aberatsean.

“Del centro de Vasconia, en el rincón más agreste de la provincia de Álava surgió un sacerdote que, por sus conocimientos y técnica musical, por sus composiciones religioso-musicales, mereció escalar puesto de honor entre los que al divino arte se dedican. Este fue Vicente Goicoechea, el recientemente muerto maestro de capilla de la Metropolitana de Valladolid.”

Aramaioko omenaldia antolatzeko batzorde berezia eratu zen, Mateo Mujika buru, gerora Gasteizko gotzain izendatuko zutena. Ekintza euskal Diputazioek babestu zuten eta Goikoetxearen lagun eta jarraitzaile

Bizente Goikoetxea
(Luis Armengou)



mordoak parte hartu zuen. Gertatutakoaren kronikari ez zaio xehetasun bitxirik falta:

“Desde muy temprano, las carreteras y caminos que a Aramayona conducen vénse animados por multitud de gentes que acuden al anunciado homenaje. La animación de caseros llegó a su máximo para la hora de las diez. Numerosos vehículos de todas clases y géneros cruzan las carreteras; creemos no quedaría en Escoriaza, Arechavaleta ni Mondragón ningún artefacto disponible capaz de marchar carretera adelante...”

“... De Bilbao y San Sebastián habría una cincuentena de autos de familias distinguidas y entusiastas amateurs. De Vitoria, entre otras, las familias... Del garaje La Unión salió un servicio extraordinario de autos...”

Aramaioko kaleak apainduta ageri ziren oihal zintzilikari eta banderekin. Zirkulu Katolikoak eta Batzokiak eurenak ere atera zituzten balkoietara⁴⁶ Eta herriko sarreretan “Ongi Etorri”ko kartelak jarri ziren. Ekitaldiaren buru nagusia Gasteizko Gotzaindegiaaren –garai hartan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa– Prudencio Melo gotzaina izan zen.

“... El numeroso público se precipitó a besar el anillo pastoral del bondadoso señor Melo, que a todos amablemente bendecía. Como aún no había llegado la “Schola Cantorum” que de San Sebastián venía para interpretar los diferentes números de música anunciados en el programa, el señor Obispo se retiró a descansar a la casa del señor Párroco⁴⁷ donde le aguardaba el Iltmo. Señor don Pedro Segura, Obispo de Apolonia y auxiliar del Metropolitano de Valladolid.”

Jose Joakin Arin Arrasateko artzipresteak eman zuen meza, Etxaguen eta Gantzagako abadeek –Felix Bustindury eta Andres Gaztelurrutia, hurrenez hurren– lagunduta. Aldare nagusian bi belaunalki jarri ziren gotzainentzat eta elizako lehen jesarlekuetan Guinea eta Fernandez Dans Arabako diputatuak ipini ziren, Malax Etxebarria bizkaitarrarekin batera. Ricardo Buesa gasteitzarrak zeukan hiriko ordezkaritza eta Aramaioko udal kide guztiak ere bertan zeuden, alkatea buruan. Ohorezko tokian Bizente Goikoetxearen senitartekoak ageri ziren. Tenplua jendez bete egin zen eta askok elizpetik segitu behar izan zuen meza. Agintari eta antolatzaileak Roke Amilburu eta Bruno Orue herriko txistulariek lagunduta heldu ziren elizara. Mezari buruz dio kronikak:

“Se cantó la misa de Goicoechea, a tres voces de hombre y órgano, por un coro de setenta voces, los mejores elementos artísticos de San Sebastián, Tolosa, Zumárraga, Bilbao y Vitoria, dirigidos por la soberbia batuta de don Julio Valdés sobrino del llorado autor de la partitura, quien supo sacar de la abundante y amaestrada masa coral a sus ordenes un partido extraordinario. Sonó muy bien la inspirada música; voces juveniles

46 Zirkulu Katolikoa, Bizente Goikoetxea jaio zen eraikinean bertan zegoen. Batzokia, berriz, Sabas Amilbururen etxearen, Nardeaga Kalean.

47 Orduko erretorea Leoncio Uribarren aramaiaoarra zen.

1916ko ekitaldietako
une bat
Un momento de
los actos de 1916



y llenas venían a elevar la grandiosa concepción de inspirado artista, y fue un íntimo sentimiento de arte majestuoso y grande lo que hizo a los numerosos músicos que en Aramayona se habían congregado, pasasen brevemente las dos horas que en la iglesia estuvimos. Este sentimiento llegó a su mayor auge cuando se interpretó el grandioso Te Deum, obra hecha por Goicoechea para la consagración del hoy Obispo de Jaca.”

Azkenik, beraz, Goikoetxearen Meza bere jaioterriko eliza nagusian entzuten zen. Zoritzarrez, artistaren heriotza eman behar izan zen hori gertatzeko. Meza amaituta hartu zuen hitza Nemesio Otaño jesuitak, Goikoetxearen lagun eta ikasle maitatua, eta aramaioarraren gaineko pasarte ugari eskaini zituen, musikari eta apaiz bezala aurkeztuta. Musikari zegokionez Otañok ondokoak nabarmendu zituen:

“Si en música se me concede alguna autoridad a él (Goikoetxea) es debida. La idea de fundar la revista mundial “Sacro Hispana” suya es y a su cargo corrió mientras ha vivido... Desde 1890 a 1900 empieza a elevarse y formar un criterio propio. Sigue con entusiasmo las indicaciones pontificias y se dedica, con ardor, al estudio de la música gregoriana, saturándose de la polifonía clásica, empapándose en el conocimiento de las grandes creaciones de Palestrina y Victoria; profundiza en las producciones de los grandes maestros del siglo XVI (Morales, Navarro, Guerrero).

Es tal la afición y entusiasmo que siente por el gregorianismo, que puede asegurarse que no hubo día de su vida que no estudiase aunque fuese solamente cuatro o cinco líneas de estos grandes creadores... Son de destacar su magnífico Miserere, los salmos de Nona del oficio de la Ascensión, su última Misa de Requiem: nada más sencillo ni más grandioso. Bien unánimemente ha considerado la crítica europea a nuestro Vicente como el fundador de la moderna escuela musical religiosa española.”

Nemesio Otaño jesuitak Goikoetxearen musika ekoizpena hiru sailetan banatu zuen: 1890era artekoa, prestakuntza; 1900era artekoa, kontsolidazioa, eta hil artekoa, erabatekoa, norabide garbi eta bakarrekoa. Otañoren esanetara, 1894ko Errituen Kongregazio Sakratuak eta, batez ere 1903ko Motu Proprioak zuzendu zuten Goikoetxearen lana. Musikak elizan egiazko artea izan behar zuelakoan zegoen aramaioarra eta musikari indar bikoitziarekin heldu zion, afizioz eta esanekotasunez. Kantu gregorianoaren eta Palestrinaren polifoniaren bitartez iritsi zen goraino Goikoetxea.

Jesuitak egun hartan elizara bildutakoei egindako adierazpenei jarrai-kiz, Goikoetxearen azken obrek –Nona, Miserere, Hildakoen Ofizioa, Misere-re, Christus factus, Te Deum eta Requiem Meza– markatzen dute egilearen inspirazioa, kutsu erlijiosoa eta goi artea, Goikoetxea Europako musikari onenen multzora eraman dutenak. “Espainiako musika sakroaren eskola berriko burua da” esan zuen Otañok. Eta agindu zuen hori guztia eta azkoz gehiago azalduko zuela Goikoetxea bere maisuaren gain prestatzen ziharduen liburuan.⁴⁸

Ekitaldi hartatik kanpo, esan dezadan Nemesio Otañok obra bat eskaini zuela 1916 urte hartan bertan bere maisuaren omenez. Elegia titulukoa da, hiru teklatu eta pedaleko organorako idatzia. “A la santa y dulcísima memoria de mi Maestro Dn. Vicente Goicoechea” idatzi zuen partituran Otaño azkoitiarrak. Obra horri buruz esan zuen Enrike Masso kritikoak Otañoren dohain guztiak ematen direla Goikoetxeari eskainitakoan: gardentasuna, bikaintasuna eta erlijio-erakuspen sakona⁴⁹.

48 Liburua ez zen inoiz publikatu

49 “Nemesio Otaño” (Esteban Elizondo. Azkoitia Udala. 2008)

1916ko ekitaldia
Goikoetxearen
jaiotetxearen aurrean
Acto de 1916 frente a la
casa natal de Goikoetxea



Aramaioko ospakizun hartara itzulita, elizako ekitaldia amaituta publiko osoa herriko plazara jo zuen eta Bizente Goikoetxearen jaiotetxean oroitarri bat agertarazi zen, agintariekin ekintza Udaletxeko balkoitik jarraitzen zutelarik. Oroitarria Ramon Goikoetxea harginak landu zuen. Marmol zurizkoa da, eta musikariren erliebeko irudia dauka, hitz hauekin:

*"Emen jayo zan Jaun argitsu eliz musikalari bikain eta elizgizon bioztsu,
VICENTE GOIKOETSEA ERRASTI
Beroren andiesle goresprena
Aramayo 1916ko Urriaren 22an
Aquí nació el
M.I.S D. VICENTE GOICOECHEA Y ERRASTI.
Eminente compositor de música sagrada y virtuoso sacerdote.
Homenaje de sus admiradores.
Aramayona, 22 de octubre de 1916"*

Goiketxearen etxeko balkoitik Resurrección María de Azkuek bere hitzaldia egin zuen, euskaraz. Lekeitio ezagutu zuen adiskidearen gaineko zertzelada hurbil eta beroak eskaini zizkien bertaratutakoei eta hauek biziki txalotu zuten Azkueren mintzaldi joria. Besteak beste, esan zuen lekeitiarrak:

"... Lekeitio bizi zala udako oporregunetan beintzat iluntzereo alkarrekin izaten ginan: elizan lenengo, itsasgain-gainean gero; eta egurats lodiz birikak sendatzen genituen bitartean, alkar, igarri gabe bezela, egunean baino egunean obekixeago ezagutu ta samurrago maitatzen bizi ginan. Orduan zan neri emengo berri ematea; emengo organularia aurpegiz ta

biotzez non zan adieraztea. Orduan ikasi nituen emengo auzotegitxoen izenak: Gantzaga ta Barajuen, Arexola ta Etxaguen, Azkoaga, mendiz beste aldeko Olaeta ta gainerakoak.

... *Gasteizera joan zan bachilleratua ikastera. An Arabako seme entzute andiko batekin, Mateo Benigno Moraza jaunarekin artu-eman andia izan zuen. Musikarako zekarren gaitasuna nabarituz, beraren pianua eman zion Morazak Vicenteri. Bein baino sarriago esaten omen zion lege-zar-zain ospetsuak: "Mutil, egin adi apaiz ta Gasteizko kanonigu egingo augu" Beraz, otzan ta apal, etzuela deirik, bokaziorik etzuela, erantzuten zion.*

... *"Izen ona zaindu ezazu" irakurtzen degu jainkozko liburueta. Auxe egin nai izan zuen orduan Valladolideko maisu berriak. Uste dan baino maizago ikusten dute burua musicalariak, beren izen ona zaindu bearrean... sasietako arantzen gisa alkarri zirkatuz, elkar minduz... Ba, zuen erritarrak etzuen gibel beaztunik ez biotzean bekaizkeriarik. Kideren bati egiten zitzaitzketen txaloak ez zuen goibeltzen. Amaika musicalari gaztek eskerronez oroituko ditu Goikoetxeak emandako pozgarri eta burbide onak."*

Mintzaldiaren ostean Donostiako San Vicente elizako Schola Cantorum-aren tipleek eta beste zenbait abeslarik hirurogeita hamar kidetako abesbatza osatu zuten, Julio Valdesen zuzendaritzapean Goikoetxearen Kristo Errege himnoa abesteko.

Goizeko ekitaldiei amaiera emateko agintari zibil eta erlijiosoak Aramaioko erretorearen etxera bildu ziren baziak. Zer gertatu zen baziakonposaketarekin? Kronikek ez dute zehazten otorduan zer zerbitzatu zen eta jakin gabe geratzen gara Mateo Mujikak nahi zuen bezala baziak duina izan ote zen. Baino badirudi udal taldea eseri zela mahaira, Udalak berak nahi zuen moduan.

"... asistiendo los obispos de Vitoria y Apolonia, el P. Otaño, el P. Mandarriaga, el Dr. Azkue, los sacerdotes oficiantes, representantes de las Diputaciones de Vizcaya y Alava, alcalde accidental de Vitoria y Ayuntamiento de Aramayona. En el Centro de Obreros Católicos comieron los excursionistas de Vitoria, con la comisión organizadora del homenaje, representantes de los periódicos locales etc."

Migel Jauregi
aramaioarra
El aramaioarra
Miguel Jauregi



Bestalde, zinegotziek aurretik adostu bezala, berrehun eta berrogeita hamar pezeta ordaindu zion udalak batzorde antolatzaileari, herri ekarpen gisa.

Ekitaldi kulturalak arratsaldean jarraitu zuen Udaletxeko areto nagusian. Lehenik, Luis Armengou Arrasateko artistaren margo irudi bat agertarazi zen. Kultura, hezkuntza, politika eta mundu erlijiosoko dozenaka atxikimenduren irakurketa egin ostean, hizlarien txanda heldu zen: Mateo Mujika antolatzaile burua, Etxeguren, Benito Guinea diputatua, Francisco Perez de Viñaspre Burgoseko Katedralaren Kapera Maisu eta Goikoetxearen laguna, Jose Joakin Arin artzapeza, Miguel Jauregi eta Federico Baraibar Arabako Diputatu Nagusi ohia⁵⁰. Ondokoak Baraibarren hitz batzuk ditugu:

“El temperamento serio y reconcentrado de Goicoechea le impulsaba desde la juventud a alejarse de las trivialidades de la vida y a buscar como preferente solaz la contemplación de los campos. Sentíase en sus soli-

50 Federico Baraibar Zumarraga (1851-1918) aipatua izan den Gasteizko Jose Zumarraga notarioaren loba zen. Notaria hartan egin zuen lan Bizente Goikoetxeak 1879 urtean eta ziurrenik aramaioarrak eta Baraibarrek elkar ezagutzen zuten.

tarios paseos más cerca de la naturaleza, oía sus augustas voces y sus ritmos misteriosos. La quebrada campiña aramayonesa con sus angostos valles, fragosos montes, selvas enmarañadas, arroyos rumorosos y vivo y retozante ganado trocábase para él en órgano inmenso donde las brisas suaves o el recio vendaval vibraban melodías solo perceptibles al genial espíritu ¡Cuántos temas melódicos no inspiraría la naturaleza al gran alavés enamorado de su tierra!...

... Con suprema maestría, asimilándolos en aire, inspiración y sabor a la melodía gregoriana, utilizó Goicoechea cantos populares. En el grandioso Miserere, por ejemplo, aprovecha un tema popular que aparece simple, escueto, al unísono en la parte puramente gregoriana del coro, y magnífica y polifónicamente desarrollado en toda la obra, sobre todo en los números primero, noveno y diecinueve. De este modo, obedeciendo al Motu Proprio y dando cabida en su música a tiernas remembranzas terreñas, acentúa dos rasgos característicos del alma aramayonesa: sumisión a la autoridad, amor al país.

... Yo, arrogándome la representación del país natal, me atrevo a erguirme hasta la faz radiosa y por la madre Aramayonesa, beso con beso de reverente amor la frente del maestro Vicente, del Vicentito de los coetáneos que le sobrevivimos.”

Ondoren Francisco Perez de Viñasprek azaldu zuenez bazen arriskua Goikoetxea eta beraren arteko adiskidetasunak zorroztasuna kentzea bere hitzei. Hala ere, ahaleginak egin zituen bihotzak baino ozenago buruak hitz egin zezan eta aitortu zuen:

“Desde el honroso cargo que ejerzo en la Metropolitana Burgense, quiero ser portavoz de todos los maestros de la Iglesia española, pues todos sin excepción los creo congregados en espíritu en este recinto. Ninguno deja de conocer en las Catedrales españolas su Miserere, su Christus, sus Motetes, sus Misas... Los más conspicuos las han tomado como modelo de composiciones religiosas.”

Miguel Jauregi Aramaikoko seme euskaltzale eta Donostiako artzapezaren ekarpena oso txalotua izan zen. Bereak dira ondoko hitzak:

Julio Valdés Goikoetxea



“... Gaur, berriz, ikustean Goikoetxea dala Aramaiok emon daben semerik biargiñ, saiatu, zintzo, saill, kementsu ta langilleena, ta au aitortzera guziok toki onetan alkartu garela. Ai! Ez naiz izango biotzetiko zorion-agurra ta neure orduonekua berari emoten ezpadeutsat erri onetan jaiotzea gertatu jakolako. Bai, zorionez ementxe jaio zan gaur txalotzen dogun eleizgizona, ta emen bertan bere gaztetazunezko urterik ederrenak igaro zituan; ikusiaz aramaiotarren ontasun ta onoidadeak, zirudiala lorarik lora or-emen dabillan erletxo arduratsua. Eta nork daki zer izango zan, emen ikusitako lora ederrak ikusi ezpalitu ta eurakaz sorta eder bat egin da zaindu ezpalu. Edo ta Jaunak bere adiñ ta biotzean ereiñ eban asi onari kiskurtzen edo erkintzen alpertzez edo azpertzez jarain baleutso? Alegiñez zaiatu zan, ta bere alegiñ guztiak, danak, osorik, gustiz, Jaunari ezkini ta opatu eutsazan. Ara emen itz gutxitan ezanda bere biziitza guztia.

Aramaiotar nekazari ta luginak be ibilli ta ibilli, ekiñ ta jardun atxak solo biurtu dituz eta, ez al dozube ikusten emendik beste erririk ez da zerua bakarrik agiri dala? Aonegatik, Aramaio ta Goikoetxea-ren artian dagoan antz-irudi ta bardintasuna zomatzean, ezango deutsuet Aramaio dala ama, Goikoetxea semia: ama-jaioterriari dagokiola egiazko amatasuna, ta semiari amaren izaera artu, eduki, zaindu, gorde ta edonoz agertzen emotia.”

Goizean elizan aritu zen abesbatzak tartekatu zituen Goikoetxearen Misserere zenbait zati hitzaldiekin eta amaierako agurra ere kantuz egin zuten Udaletxeko batzar aretoan. Emanaldi musicalaren zuzendaria Julio Valdes Goikoetxea izan zen.

Omenaldirako atxikimenduak irakurri ziren, estatu osotik iritsiak. Dezenen artean nabarmentzen ziren Euskal Aldundiak, Sevilla, Valladolid eta Toledo Artzapezpiku eta kardinalak, Bartzelona, Salamanka, Ciudad Real eta Kordobako gotzainak, Valladolideko Katedralaren Kabilda, Spainiako Elkarte Zeziliarraren presidente⁵¹ eta Karmelo Etxegaray Euskal Probitzietako Kronikagilea.

Eguneko ekitaldiei arratsaldeko azken orduan eman zitzaien amaiera. Kronikek diotenez oso arrakastatsua gertatu zen dena.

“El regreso fue animadísimo, desfilando todos los asistentes a felicitar efusivamente a la Junta organizadora, mereciendo especial mención el señor Mújica⁵², que estuvo incansable. Todo estuvo perfectamente organizado y por ello cordialmente felicitamos a todos, Junta, autoridades, músicos y aramayoneses.”⁵³

Bizente Goikoetxearen arreba Angelak –Julio Valdes Goikoetxearen amasendiaren izenean eskerronik beroena azaldu zuen publikoki, bere anaiaren omenez Aramaion egindako ekitaldi zoragarriarengatik. Angelak Aramaioko herria nabarmendu zuen bere hitzetan, eta esan zuenez egun hura betiko geratuko zen grabatuta Bizente Goikoetxea musika maisu handiaren sendiko oroimenean.

51 Europako antzerako erakundeei jarraiki, “Asociación Cecilianista Española” sortu zen 1912an. Vicente Ripollés zen lehendaria eta lehen lehendakari ordea Julio Valdes Goikoetxea.

52 Mateo Mujika Urrestarazu (Idiazabal 1870-Zarautz 1968) Gotzain egin zuten 1918an eta 1928an Gasteizko gotzain izendatu zuten.

53 La Libertad el diario más antigüo de Vitoria” Año XXVII Número 8582 - 1916 octubre 23

Manuel Lekuonaren poesia

“Goicoechea Jauna, Aramayoko izarra” titulupean Manuel Lekuona euskaltzale handiak olerki bat eskaini zion 1916ko urrian, musikariari bere herrian omenaldia egin zitzainean. Lekuona ez zen egon Aramaioko ekitaldian eta bere izenean Jose Joakin Arin Arrasateko artzapezak irakurri zuen. Hona hemen, gero “Euskal Errria” aldizkarian 1916an bertan publikatu zena.

*Euskalerriko basoetako aingerua, lirain, ariñak
euskal oyuen izkutatzalle, gure Jainkuak egiñak.
Maite zenduten ereslariya il du eriotz gordiñak;
bañan negarrez aski da, aski da, tira, isildu zopiñak:
irichi dira zuben kutuna goraldutzeko adiñak.*

*Zuben kutuna... alaxe omen zan, egiya.
Zuben kutuna ... bañan (buru auskarriya)
Euskaldun-aingerua on, maitasun kabiya,
Ez al dago euskaldun orogan jarriya?
Gezurpetu ote-da danon erausiya,
Naiz izan aundimendi, naiz artzai chikiya
euskaldun dan artean euskaldun guziya;
euskaldun dan bezela, dala abeslariya?*

*Zeri dagokio ba orok dakusguna,
batentzat berestia zuben maitasuna?
Zelan onelangoxe berezitasuna?
Noiztik nora Bizente da zuben kutuna?*

*Ikusten nago: aiton zar bat zan... jantzi churiya soñian...
Guzion Aitak negarra zegin, Jaungoikuaren echian
Negargarriya! ainbat belar char sortu zirala ikustian.*

*Arren sutsuaz otoika ari zan Jesus onaren aurrian,
Eleiz gasuak zeraman gaitza berak sendatu zegian...
Otoitzetikan jaiki da Pio... zero goitikan lurrera
Egarin dator jainkotiar bat, non edo non billatzera..*

*Erri chikicho bat da, gizonez urriya.
Dana dantzari eta dana abeslariya:
betiko oyua eta betiko irrintziya,
pozturik dauka beti ibar ta mendiya,
basartian bizi da: da Euskalerriya
Euskalerrira dator aingeru zoliya.*

*Aitorren erri ortan erri gordiena,
Aramayo: Bizente da ango apalena;
bañan eresietan danik bikañena,
enda eresi zale onechen kemena,
dana bere zañetan osorik dubena:
Orixo da Jainkuak begiz jo zubena.*

*Ikusten nago: Goikoechea, aingeruaren besuan,
gora dijua... iya gorde da... sartu da sartu barruan;
zorabioaz zoraurikan, goyan dago, an, zeruan
oyu goitarrak gogoz eraten oyuen iturburuan,
eder guzien itsasua dan Jainko beraren albuau...*

Gero goitikan sutua legez bera etortzen danian,
bere kemenak jarriko ditu Pio Aitaren mendian.
*Gero... O! Gero zer egin zuben Jaungoikuaren echian
gutarrak eta erbestekuak aitorzen dute batian,
Goikoecheak sortuetako eresi kide gabian
Bildots deunaren eztai oyuak abestutzen diranian,
beko Eleiza jarri leikela Zerukoaren aldian.*

*Ainchen dirade garden, zerukoi; ainchen egoki iralkiyak
bere liratik isuri ditun oyuen arrigarriyak,
aldizka bigun, ezti jariyo, aldiz gori irazekiyak
aldiz negarti, aldizka berriz itzal ta ikaragarriyak.*

*Orra zergatik, ta noiztik nora Aingeruen kutunetan,
Zenbatuko da Goikoechea mende guziyen mendetan,
orra zergatik bere izena ele diren guzietan,
zalantzik gabe ipiñiko dan mallarikan goyenetan.*

*Aintza, aintza bai zuri gure omenduna:
Zuk ospez jantzi dezua enda euskalduna,
zure entzute aundiz gaur nonai ezaguna:
Aintza, bai aintza zuri, zuri burestuna,
Jainko bera dalako Jaun guzialduna.
Eleizaren pozkarri berexi zaituna:
Zuri, bai zuri aintza, zuri naitasuna
Aingeru menditarren Bizente kutuna.*

Goikoetxearen jaiotzaren mendeurrena 1954

Aramaioko Udalak ez zuen ahaztu bere seme ospetsua jaio zeneko mendearen efemeridea eta, 1916an ez bezala, modu aktiboan prestatu zuen egitaraua, 1954an. Valentín Lasaga zen orduko alkatea eta urte hartako martxoaren 26ko udal aktan irakur daiteke:

“Coinciidiendo el año actual con el centenario del nacimiento del presbítero y eminente compositor de música sacra D. Vicente Goicoechea y Errasti, hijo de este noble valle, e interpretando fielmente los deseos de este vecindario, se acuerda por unanimidad dedicar a su memoria un grandioso acto de homenaje, con la debida aquiescencia de las autoridades competentes, si a bien tienen concederla. A tal efecto se acuerda se constituya una comisión organizadora de los actos a celebrar en la fecha que tal comisión fije. Esta comisión deberá constituirse con representación de autoridades eclesiásticas, civiles, populares y un representante cultural. Por lo que respecta a este Ayuntamiento se acuerda designar como vocales al Sr. Alcalde, al Sr. Teniente Alcalde y al Secretario del mismo.”

Alkate ordea Hermenegildo Lopez de Bergara zen eta idazkaria Constancio Fernandez. Batzordeak hurrengo udal bilkuran –apirilaren 9an, hain zuen mendeurrena betetzen zen egunean– eraman zuen aurrekontuaren proposamena eta aho batez 10.000 pezeta onartu ziren omenaldiaren gastuetarako. Eta ekitaldiaren data udarako uztea erabaki zen. Hala ere, badirudi Goikoetxearen inguruko aurreko deliberamendu batzuk mahai gainean jarri zirela, besteak beste herriko plazari zegokion izena.

Ikusi da gorago, Goikoetxea hil eta hamabost bat egunetara Aramaiooko Udalak erabaki zuela kale bat izendatzea Bizente Goikoetxearen deitura-rekin, eta 1916ko maiatzaren 30ean aldatu zuela ideia eta azkenik herriko plaza eskaini ziola bere seme ospetsuari.

1954-07-05eko egunkaria
Periódico del 05-07-1954

PENSAMIENTO ALAVÉS

VITORIA, Jueves 5 de Julio de 1954 AÑO XXI-Nº 11.000 Precio: 100.- Pts. - Edición: 1.000 - ISSN: 0210-0209

El jefe del Vietnam protesta por la evacuación francesa del delta del Río Rojo

Deja a dos millones de católicos a merced de los comunistas

Mosul iraní en carretera a Giebra la prórroga del armisticio de Indochina y de la comunidad defensiva europea

Alemania Occidental, soberana

Los diplomáticos de Washington y Londres estudian la asociación alemana al mundo libre

Enojo francés por una advertencia del Canciller Adenauer

Aramayona celebró ayer el centenario del Maestro Goicoechea

Las autoridades alavesas descubrieron una lápida conmemorativa, y pronunciaron un discurso el Ilmo. señor Arillaga

Arribes, al exilio

Franja vizcaya

Horregatik da deigarria, 1954ko maiatzaren 12an Udalak hartutako era-bakia:

"Procedía rendir justo homenaje a su memoria, dedicándole la plaza pública de esta capitalidad de Ibarra, y cuya plaza le será dedicada el día cuatro de julio próximo venidero, fecha fijada para rendirle grandioso homenaje con asistencia de eminentísimas autoridades eclesiásticas de diversos puntos de España y autoridades civiles y militares de Alava, así como la de diversas entidades culturales y musicales admiradoras de nuestro ilustre hijo."

Udalaren erabakia ez zen horrela amaitzen, baizik eta ordurarte Bizente Goikoetxearen izena eraman zuen kaleari aurrerantzean Simon Landa udal



idazkari ohiarena ipiniko zitzaion. Maiatzaren 30ean udalak jakin izan zuen Arabako gobernadore zibilak onartu egiten zuela aldaketa. Eta, beraz, omenaldiaren data jarrita zegoen: uztailaren 4. San Martin herriko zaindariaren jaiak ziren.

Eguna ilun samarra esnatu zen, sirimirirekin, baina orduak aurrera joan ahala eguzkiak toki hartu zuen zeruan. Goizean goizetik eta elizara-ko atera arte Euskal Herriko ordezkaritzak ofizialak Udaletxera bildu ziren. Ibarrako etxeen balkoi asko apainduta ageri ziren. Eltziegoko musika banda kalejiratan ibili zen eta neska mutiko ugari haren atzetik zihoazen dantza eta saltoka, ospakizunak ekarriko zituen ekitaldien zain.

Udaletxetik abiatu zen komitiba elizarantz, herriko txistulariek eta Gasteizko Txirinbil dantza taldeak lagun. Agintarien artean ikusten ziren, Bueno Monreal, Gasteizko Gotzaina; Lorenzo de Cura, Arabako Ahaldun Nagusia; Hilario Bilbao, Bizkaiko Ahaldun Nagusiordea; Tutor jeneralra, Arabako Gobernadore Militarra; Guzman Lacalle, Gasteizko Alkatea; Ignazio Arrillaga, Industria Ministerioko Idazkaria; Valentín Lasaga, Aramaio-ko alkatearekin, eta beste diputatu, alkate eta erakundeen ordezkariekin batera.

Baziren kultura munduko pertsonak ere, besteak beste, Tomás Garbizo, musikaria; Tomás Manzarraga Tesoro Sacro Musical aldizkariaren zuzendaria; Fidel Ibargutxi, Lekeitioko Abesbatzaren zuzendaria; Ramón Usandi-zaga, Donostiako Kontserbatorioko zuzendaria; Bixtor Zubizarreta, Bilboko Kontserbatorioko zuzendaria; Urkijo Kondea, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteakoa; José María Olaizola Bilboko Katedralaren Kapera Maisua; Dionisio Isasmendi, Arrasateko organo jolea eta Dimas Sotes, Gasteizko Katedralaren Kapera maisu eta Eskolaniaren zuzendaria.

Bizente Goikoetxearen sendiaren kideak ere Aramaiora heldu ziren goiz hartan: Nieves Valdes lekaiamea eta Julio eta Ignacio abadeak, hiruak Anjela Goikoetxearen seme-alabak. Elizara sartzeko, herriko dantzariekin egindako ohorezko arkuaren azpitik igaro ziren pertsonalitateak.

Meza pontificala goizeko hamaiketan hasi bazen ere, goizeko 9etan erautako beste ekitaldi erlijioso batean inauguratu zen elizako aldare berria. Kronikek honela jaso zuten hora:

“La iglesia había sido casi totalmente restaurada de los desperfectos ocasionados en años pasados en nuestra Guerra de Liberación. El maestro

de Ceremonias de la Catedral de Vitoria, Rvdo. D. Félix Ortiz de Mendivil consagró el nuevo altar y bendijo el reparado templo.”⁵⁴

“Nos dirijimos al templo parroquial, que lo encontramos totalmente remozado, gracias a una inteligente y costosa reparación llevada a cabo en el mismo, dotándole de un altar exento, con fondo de decoración mural, muy acertado, con cierto regusto arcaico, bien entonado, de fondo de oro, sobre el que aparecen episodios de la vida del santo titular de la parroquia, San Martín Obispo, obra del artista vitoriano señor Zugaza.”⁵⁵

Meza pontifiziala Bueno Monreal gotzainak eman zuen, aldarean Andres Agirre Ibarrako erretoreoa, Felipe Tolosa Azkoagako erretoreoa, Roke Uriarte Legutianoko artzapeza, Fidel Ibargutxi Aramaioko abade ohia eta Benito Nafarrate herriko seme eta Viñaspreko erretoreoa lagun zituela.

Bilboko San Vicente abesbatza eta Arrasate eta Lekeitiokoek Missa in honorem Inmaculatae Concepcionis abestu zuten. Goikoetxearen musikari Kontserbatorioko Orkestrak lagundu zion, Biktor Zubizarretaren zuzendaritzapean. Partitura originaleko organo zatiaren orkestrarako egokitzapena Aita Donostiak egin zuen. Mezako Ofertorioan abesatzak Ave Maria kantatu zuen eta amaieran interprete berdinek eta Gasteizko Tipleen eskolaniak Te Deum eskaini zuten, Dimas Sotes zuzendaria zelarik.

Homilian Julian Landazabal abadeak hitz egin zuen, eta bere hitzetatik aldatzen ditut zenbait pasarte hona:

“Alabemos a los hombres gloriosos que en su pericia encontraron nuevas maneras de canto... Vicente Goicoechea es alavés neto por su cuna, de la que él siempre se preciaba. Pero igual que su pueblo natal perteneció a las glorias comunes de nuestra Euskalerria.

... Todavía le recuerdo de cuando niño, en Lequeitio. Cuántas veces le sorprendíamos los seminaristas cantando mientras paseaba. Vicente Goicoechea no componía friamente sentado delante de su piano, juguetando con sus teclas. Componía mientras paseaba, y al pasear cantaba solo. Cuántas veces las solemnidades augustas de aquel viejo convento

54 El Pensamiento Alavés (1954-07-05)

55 La Gaceta del Norte (1954-07-06)

de dominicas de Lequeitio oyeron la voz de Vicente que cantaba y, a veces, con tal ensimismamiento que caía desfallecido, como también caen desfallecidas las almas místicas, después de su oración.

... Él fue el hombre que oraba cantando, que enseñaba también al mundo a cantar, con una música espiritual que está sobre la vida de los sentidos, con una música que al hombre hace penetrar en las mansiones del mismo cielo..."

Meza ostean, Arabako Ahaldun Nagusiak eta Gotzainak Goikoetxeari es-kainitako oroitarria desestali zuten elizpean. Bertan irakurtzen da: "Al muy ilustre Sr. D. Vicente de Goicoechea y Errasti, ejemplar sacerdote y eximio compositor de música sacra, su pueblo natal, en homenaje de admiración y cariño, en el centenario de su nacimiento. Ibarra de Aramayona, 4 de julio de 1954"⁵⁶

Horren ondoren, Ignazio Arrillagak hitz egin zuen, labur, Goikoetxea musikariaren dohainak nabarmenduz. Zeremonia amaituta, agintari, per-tsonalitate eta heritarrak elizatik plazara joan ziren –egun hartatik Bizente Goikoetxea izena daramana– euskal dantzak ikusteko, Gasteizko Txirinbil taldeko dantzariek eskainita. Amaitzeko, Udaletxeko areto nagusian bazkari bat zerbitzatu zitzaien Aramaiora heldutako ordezkaritza guztiei.

Egun hartan ere omenaldirako atxikimenduen zerrenda luzea izan zen. Bainan guztiak aipamen berezia merezi duena Mateo Mujika euskal gotzainarena da, 1916ko omenaldiko antolatzale batzordeburuaren. Atxikimendua Ipar Euskal Herriko Kanbotik heldu zen Aramaiora, Mujika erbestearen behazuna dastatzen ari baitzen herri hartan, hain zuen ere 1954ko eliz-funtzioetan buru ari zirenen eliz-hierarkiak jazartua.⁵⁷

Aipagarria ere, zalantzak gabe, Bilbon bizi zen Lazaro Ramirez Escuderoren mezua. Zioenez, prest zegoen bere diruarekin Bizente Goikoetxearen estatua bat finantzatzeko. Kokapenaren erabakia Aramaioko agintarien esku uzten zuen. Gaiak, ikusiko dugun bezala, handik urtebetera izango du bere egiaztapen borobila.

56 Goikoetxearen jaiotzaren 150. urtemugan, plka horren azpian veste bat jarri zen, dioena: "Bizente Goikoetxea Errasti (1854-1916) Aramaioko seme, abade eredugarri, musikari bikaina. Bere jaiotza- ren 150. urteurrenean"

57 Mateo Mujika Hego Euskal Herrira itzuli ahal izan zenean, bere laguntzaile Benito Nafarrate aramaioarra izendatu zuen, eta hura hil arte elkarrekin bizi izan ziren Zarautzen.



Parrokiaren atartean 1954an ipinitako plaka
Placa colocada en el pórtico de la parroquia en 1954

Mendeurreneko ospakizunek oso zapore ona utzi zuten egun hartan Aramaiora kanpotik iritsiengana eta aramaioarrengan, eta zorion ugari heldu ziizaizkien antolatze lanetan gehien arduratu zirenei: Andres Agirre Ibarrako erretoreea, Jesus Berezibar apaiz lagunkidea eta Joaquin Sainz de Vicuña Ibarrako maisua.

Kapitulu hau amaitzeko, ekarri nahi dut hona Bilboko La Gaceta del Norteren Juan de Irigoyen kazetariak idatzitakoa. Bera izan zen monumentuarekin lehen unetik bat egin zuena, ziurrenik Ramirez Escuderok eskatuta, proiektuari ahalik eta hedapen mediatikorik zabalena emateko.

"Asistí emocionado a la solemnidad de Aramayona. Pero estimo que no debemos consentir en que el tiempo diluya los fervores de un momento, dejándolos reducidos a un artificio convencional como el de aquellos "túmulos" de las exequias a la memoria de los reyes y personajes, limitados al aparatoso artificio de flámulas, pinturas y "bultos" de los que hizo cómico y desenfadado comentario Cervantes en el soneto famoso: "Y luego, incontinente, caló el chapeo, requirió la espada miró al soslayo, fuese y no hubo nada".⁵⁸

58 La Gaceta del Norte (Juan de Irigoyen. 1954-07-06)

Goikoetxearen monumentua

1954ko uztailaren 4ko ospakizunak zirela eta, zenbait mediok informazio puntuala eman zuten, egun hartako omenaldirako izandako atxikimenduen artean Goikoetxearen eskultura bat eraikitzea bere sakelatik ordaintzeko prest zegoen pertsona anonimoaz. Prentsan irakurri ahal izan zen:

“En Aramayona, entre las adhesiones que se leyeron figuraba una de un ilustre convecino nuestro, originario del valle de Cigoitia, que se ofrece a costear un monumento a la memoria del maestro, en el lugar que el Ayuntamiento estime conveniente. Es de esperar que el ofrecimiento se traduzca lo más pronto posible en obra hecha; y tenga Aramayona, en Ibarra, la perpetua conmemoración de su hijo ilustre. El monumento que se corresponde con la grandeza de Goicoechea debía ser... ha de ser perenne, hecho de la propia materia de su obra, más noble que los mármoles y los bronces.”⁵⁹

Aramaioko Udalak ez zuen aukera galdu nahi izan eta 1954ko uztailaren 9an izandako ez ohiko bilkuran honako erabakia hartu zen:

“Se dio lectura a una carta del vecino de Bilbao, Gran Vía 64, Don Lázaro Ramírez Escudero, exponiendo su propósito de proceder inmediatamente a la obra del monumento al insigne hijo de este pueblo Don Vicente Goicoechea, interesando la remisión de las mejores fotografías de busto y de cuerpo entero, siendo su propósito de cuerpo entero, resaltando sus hábitos sacerdotales.

Se acuerda por unanimidad hacer patente al Sr. Escudero el agradecimiento de esta Corporación por su generoso ofrecimiento, y darle todas

59 La Gaceta del Norte (Juan Irigoyen. 1954-07-06)



1955ean Goikoetxeari
eskainitako eskultura
Escultura dedicada a
Goikoetxea en 1955

las facilidades para la instalación del busto en el lugar que estime más apropiado.”

Nor zen Lazaro Ramírez Escudero? Lantaronen jaio zen 1886an eta bere eskuzabaltasunaz nabarmendu zen. Gopegin eskolak ireki zituen bere konturna eta Goikoetxearen eskulturaz gain Gasteizko Florida parkean ikus dai-tekeen Manuel Iradierrena ere berak finantzatu zuen. Bilbon hil zen, 1978an.

Aramaiko Udala eta Ramirez Escuderoren arteko beste albisterik ez dugu, 1955eko irailaren 9ra arte. Egun hartan honako apuntea dugu udal aktan:

“A propuesta de la presidencia, se acordó por unanimidad, hacer patente a Don Lázaro Ramírez Escudero el más sincero agradecimiento de la Corporación por su generosidad para con el Valle de Aramayona, al erigir a sus expensas en Ibarra un bello monumento que perpetúe la memoria de su preclaro hijo, el M.I.Sr. D. Vicente de Goicoechea y Errasti, virtuoso sacerdote y eminentе compositor de música sacra.”

Ordurako Aramaikoko alkatea Joaquin Sainz de Vicuña zen, herriko mai-sua, eta berari egokitutako zitzzion, irailaren 11an inauguratutako monumentuaren inguruko antolatze-ardura. Deigarria da, inongo idazki ofizialetan ez dela eskulturaren egilearen izena aipatzen. Garrantzia izan ez balu bezala.

Aurrerago joan baino lehen diodan Lorenzo Askasibar elgetarra dugula Bizente Goikoetxea irudikatzen duen estatuaren egilea. Eta Aramaikok kontuan eduki behar du oso artista preziatua dela, bere izena goi mailako euskal eskultoreekin baitago. Aurrerago arituko naiz Lorenzo Askasibarrezz eta Goikoetxearen monumentuak ekarri zion lanaz. Omenaldi txikitxoa izan bitez lerro xume hauek Lorenzo Askasibarrentzat, Goikoetxea harritan mai-su-eskuz islatzen jakin baitzuen.

Atzera egin dezagun, beraz, 1955eko irailaren 11ra arte. Egun hartan ostera esnatu zen Ibarra jai jantziez. Aramaikoko korporazioak itxaroten zion elizaren eskaileretan Peralta Gasteizko gotzainari, Arrasateko Udal Txistulariek lagun. Eta mezari ekin zitzzion, Arrasateko Abesbatzak kantatu zuelarik ia-ia ordura arte taldearen buru izandako Dionisio Isasmendik zuzenduta. Isasmendik 1954an irabazi zuen Bilboko Katedralaren Kapera Maisu titulua. Mezan, jakina, Goikoetxearen obrak jo eta abestu ziren.

Aldarean Peraltaren laguntzailea izan zen Juan Unzalu Landaburu, Aramaikoko Oletako seme eta Valentziako kalongea. Beraiekin batera Andres Agirre, Julio Valdes, Jose Maria Olaizola eta Aramaikoko eta Arrasateko apaizak. Besteak beste, egun hartan Aramaion sendi zabala zeukan Pedro Salaberri arrasatearrak azpidiakonotzaren osteko lehen zeremonia izan zuen. Eta gondidatuen artean, Lazaro Ramirez Escudero, mezenasa; Angel Diaz de Tuesta, Libiako Spainiako ministroa; Alejandro Valdes Goikoetxea omenduaren loba; eta Lorenzo Askasibar, monumentuaren egilea. Meza amaituta, monumentuaren inaugurazioa izan zen. Estatuaren deskribapen txikia egiten du prentsak:

“Rodeado de un jardincillo que tiene siete columnas como fondo, que de menor a mayor y escalonadas simbolizan las siete notas pentagrámicas, aparece la figura del sacerdote y músico, sentado, sosteniendo en su mano derecha un pliego de papel pautado enrollado.”⁶⁰

60 El Pensamiento Alavés (1955-09-12)

Eskultura bere
lehen kokalekuau
La escultura
en su primer
emplazamiento



Estatua estaltzen zuen oihala kendu aurretik Juan de Irigoyen kazetariak hitz egin zuen, Goikoetxearen bizitzari buruzko zenbait anekdota azalduz. Gorago ere adierazi dudan moduan, Irigoyen zen urtebete lehenago La Gaceta del Norte egunkarian estatuaren inguruan idatzi zuen lehena. Bergarako jatorriko zen eta Lazaro Ramirez Escuderoren adiskidea.

Peralta gotzainak, Ramirez Escudero finantzatzailak eta Joaquin Sainz de Vicuña Aramaiko alkateak desestali zuten estatua, txistulariek Agur Jaunak jotzen zuten bitartean. Jarraian, Arrasateko Abesbatzak publiko aurrean interpretatu zuen ostera Goikoetxearen Ave Maria.

Gonbidatuak eta udal korporazioa Udaletxera bildu ziren bazkaltzera eta arratsaldeko lehen orduan monumentuaren aurrean dantza eta kanta saioa izan zen, Zuiako Virgen del Oroko Abesbatza eta dantzariekin. Eguneko kronika idatzian irakurtzen zen:

"Aramayona ha cumplido el llevar a la práctica y hacer realidad la idea tantas veces soñada de perpetuar la memoria de aquel hijo ilustre del Valle, y la figura atrayente, bondadosa y sencilla de don Vicente presidirá los juegos de sus niños y asistirá desde su trono de piedra a compartir

las alegrías y tristezas de sus paisanos, mostrándose a las generaciones futuras de ejemplo y modelo a imitar.”⁶¹

Amaitu nahi dut Juan de Irigoyenen hitzekin. Berari egokitu zitzzion berba egitea monumentua inauguraratu zenean eta honako hauxe zen kazetari euskaltzalearen iritzia. Gaur egun ere aplikagarriak diren hitzak ditugu:

“No basta con esta localización del recuerdo en el lugar recatado en el que vino al mundo de la vida física. Goicoechea vino también a la vida del arte, con aires de universalidad, que admiran más que nosotros –siempre un poco despectivos para lo propio– los extraños... los doctos extraños, que no han recatado su asombro al estudiar y criticar la ingente concepción de la música religiosa que nació en el maestro al conjuro de su beatitud y fiebre creadora. Son los maestros de las doctas escuelas de Ratisbona los que ratificarán cualquier día sus afirmaciones de enaltecimiento de la figura del maestro vasco.”

Monumentuaren egilearekin

Aitortu behar dut harrituta nengoela Bizente Goikoetxea irudikatzen duen estatuaren egileaz oso informazio txikia eta, gainera, urrutikoa edukitzearaz. Estatuan “L. Ascasibar” izena irakurtzen da, egilearen sinadura gisa. Bainan denborak –eta horrek dakarren ondorioek- ia-ia irakurtezina egin dute egilearen izena antzematea. Bestalde, garbi dago 1955eko laudorio guztiak estatua finantzatu zuenarentzat izan zirela.

Baina hara non, galdezka eta galdezka, Lorenzo Askasibarren berri izan nuen, eta adiskide batzuen tarteko berarenganaino heldu nintzen. Eta horren ondorioz elgetarra Goikoetxearen heriotzako mendeurrenean protagonista bilakatu ahal izan da, duela hirurogei urte ez bezala. Aramaioko udalak zor moral bat kitatu du artistarekin.

Lorenzo Askasibar Elgetan jaio zen 1930ean. Arte bideetatik jo zuen txikitatik, eta 1954an Bizkaiko hiriburuko Erreprodukzioetako Museoan ari

61 El Pensamiento Alavés (1955-0912)



Lorenzo Askasibar eskulturgilea
El escultor Lorenzo Askasibar

zen ikasten. Garai hartan Museoko presidentea Manuel Ramirez Escudero zen, Aramaion Goikoetxearen monumentua eraiki nahi zuen ongilearen anaia, hain zuzen. Eta bi anaiek euren artean hitz egin zuten, eskulturarako balizko egileaz. Lorenzo Askasibarren izena atera zen eta elgetarrari proposatu zioten obra burutzea eta baita artistak onartu ere.

Askasibarrek eskarmentu txiki bat bazuen eskulturgintzan –harmarri batzuk eta irudi txikiak egin zituen aurrerago– baina bere karrerako lehen enkargu handia izan zen Bizente Goikoetxeari zegokiona. Bere lehen eskultura publikoa da Aramaiokoa.

Obra aurrera eraman ahal izateko toki berezia behar zuen Askasibarrek eta Lazaro Ramirez Escuderok lokal bat utzi zion Zorrotzako kaian. Ia-ia urtebeteko lanari ekin zion bertan. Lehenik buztinez joan behar izan zuen modelatzen irudia, neurri naturalez. Eta horretarako laguntza berezi bat lortu zuen. Zorrotzako erretoreak –abade jantzi aproposetik jantzita– mode-

loren lana egin zion, Askasibar eskulturari itxura ematen joan ahal izateko. Aramaio eta Lekeitiotik iritsi zitzazkion argazkiekin lortu zuen gorputz hari Goikoetxearen aurpegia ipintzea.

Bost bat hilabetetako ekinaren ostean, behin modeloa buztinez amaituta eskaiolara pasatu behar zen, moldea egiteko. Behin hori lortuz gero, harriarekin hasi behar zen. Marmolería Bilbaína enpresaren aholkuz Santanderreko Escobedoko harria erabiltzea erabaki zuen Askasibarrek. Bertara joan zen eta behar zuen blokea hautatuta, Deustuko Zumalde marmoleko enpresara eraman zuen eta lantegi hartan emandako beste bost bat hilabetetan harritzar hari itxura ematen aritu zen. Askasibarrek bere estudioan gordetzen dituen lanabesen artean, Goikoetxearen estatuan ebakiak eta itxurak erdiesteko erabilitako konpas-kartografoa gordetzen du. Garaiko teknologia!

Estatua amaituta, 1955eko abuztuaren amaiera aldera Deustutik Aramaiora kamioaz eraman zuten eta, gogoratzen du Askasibarrek, aramaioarek oso gustura hartu zuten euren semearen irudia errepresentatzen zuen obra. Askasibar ere harro sentitu zen bere lehen obra publikoari egindako harreraz.


Elgetarrari aurki – 1956– etorriko zitzaion Lazaro Ramirez Escuderoren aldetik Gasteizen Manuel Iradier exploratzailearen estatua egiteko enkargua. Bere izena Euskal Herrian ez ezik baita Ameriketako Estatu Batuetan ezagun egin duen artistaren ibilbidea Aramaion hasi zela esan daiteke.

Bizente Goikoetxea musikariaz, solasean

Sabin Salaberri - Floren Unzueta - Rafa Mendialdua

Noiztik duzue Goikoetxearen gaineko berri?

- S:** Umetatik –sei-zazpi urte nituela– alde batez, plazan, jaio zen etxean, plaka batek bere berri ematen zuelako eta txikitatik idatzita ikusten nuen dena irakurtzeko joera nuelako. Eta bestalde, elizako koroan abesten nuenez, nagusiei Meza entzuten nien sarritan. Eta Aste Santuan Goikoetxearen Christus factus est ederra abesten genuelako.
- F:** Nik txikitatik daukat Goikoetxearen berri, bederatzi edo hamar urte nituela tiple izan bainintzen Ibarrako parrokiako koruan. Fidel Ibargutxirekin ikasi nituen solfeoko oinarriak. Eskola amaitzean joaten ginen



Velez de Mendizabal, Unzueta, Salaberri, Mendialdua

arratsaldez, kaletar batzuk eta nire gisako baserritarren bat. Arratsaldeko 5etan atarian egon behar genuen, bestela isuna ordaindu behar zen eta ikasturte amaieran diru harekin txango bat egiten genuen Debara. Nik horrela ezagutu nuen itsasoa.

- R: Fidel Ibargutxirekin oso harreman estua izan nuen haurra nintzenetik, nire etxean bizi izan baitzen zortzi urtez. Solfeoko irakaslea izan genuen. Asko hitz egiten zuen Goikoetxeari buruz.

Zein izan zen entzun zenuten lehen obra?

- S: Esan dudan moduan, Meza, Christus factus est motetea eta Karmengo Amari.
- F: Nik uste dut Christus Factus izan zela. Gogoratzen naiz kontralto partitura abesten nuela, benetan oso zaila. Hori ere gogoan daukat. Ez dakit zein obrak hunkitu ninduen txikitán. Oso gogoan daukat jai nagusietan elizako koruak bere Meza abesten zuenean gustura entzuten nuela. Harrigarria zen Ramon Ormaetxea nire osabaren ahotsa. Bainaz baziren beste batzuk ere, oso onak, salaberritarak esaterako.
- R: Parrokiako abesbatzak entsaiatzentzituen Goikoetxearen obrak eta nik ere hartzen nuen parte, tiple bezala, sei urterekin. Christus factus est abesten genuen, batez ere. Baita Miserere xehe bat. Sabinek esan duen moduan, Karmengo Amari ere kantatzen genuen.

Eta benetan esan zenutela: hau bai dela musika sakroaren punterengoe gilea?

- S: Christus factus est motetearekin gertatu zitzaidan. Horrekin geratu nintzen guztiz konbentzitua Goikoetxearen mailaz.
- F: Neretzat gustokoena Ave Maria da. Asebete egiten nau, guztiz. Gero Sol-eko Mezaren kiriea izango litzateke, ederra benetan.
- R: Badira zenbait partitura sakon hunkitu nautenak. Gasteizko San Vicente elizako organo joleak, Lizarralde, esan ohi zuen Ave Maria-ren Solean dagoela sekulan entzun ahal izan den esaerarik hunkigarriena. Ene us-tez, Meza da sakontasunik gehien duena.

Eta zuek gehien gustukoен duzuena?

- S: Ezagutzen ditudan denak. Egia esan, osotasuna gustatzen zait. Eta batteon bat azpimarratu beharko banu, Christus factus est. Bainaz tokitxo

Sabin Salaberri



bat ere eman beharko diot Edoctus autem deritzanari, Arrasaten David Artzamendik maite-maite zuena.

- F: Lehen esan dudan bezala Ave Maria dut gustukoena.
R: Orokorrean, Meza bera.

Goikoetxearen musika interpretatu zuzendu al duzu inoiz?

- S: Ez hori bakarrik. Goikoetxearen obrak abestu, zuzendu eta organoz lagunduz gain, moldaketak egin ditut. Adibidez, gazteleratik euskarara testu aldaketak, eskuz idatzitako originaletatik ateratako bertsio berriak, gaur egungo soinu medioetako moldaketak, organo partetik ateratako koro bertsioak, orkestra laguntzak eta abar egin ditut Eta Goikoetxeari buruz hitzaldi eta idatzitako komentarioak ere ugari eginak dauzkat.
- F: Ez dut zuzendu inoiz bere obrarik. Baino bai organoa interpretatu. Urtero Otxandioko jaietan Goikoetxearen Meza eta Salvea abesten ditu hango koruak eta ni joan izan naiz organoa jotzera azken urte hauetan.
- R: Beharbada Gasteizen baino gehiago Aramaion aritu naiz Goikoetxearen musikarekin. Gu apaizgai ginenean topera bizi izan genuen Goikoetxe-

ren obra, gozatu egiten genuen. Gero Gasteizko apaiztegian filosofiako ikasleen abesbatzaren zuzendaria izan nintzen lehenik eta jarraian teologiakoarena. Sabin bera genuen musikako prefektua. Scholako zuzendari orde moduan hiru urtez aritu nintzen, karrera amaierako ikasleekin, eta Goikoetxearen musika kantatzen genuen maiz. Apaizgaitegian gehien abestu duguna Tantum Ergo-ak izan dira. Zortzi bertsio diferente ditu Goikoetxeak.

Musika sakroaz gain, ezagutzen al zaio besterik?

- S: Nik behintzat ez.
F: Bere musika sakroaz gain beste motako obrarik ez du Goikoetxeak.
R: Ez, ez dago besterik.

Latinezko testuetan oinarritu zen Goikoetxea, batez ere, bere konposa-keta lanetan. Erabili al zuen beste hizkuntzarik?

- S: Ba ditu gaztelera eta euskarazko zenbait abesti. Denak eliz abestiak, egia esan.
F: Latinezko testuak erabili zituen. Gaztelaniaz bai ezagutzen ditut: En vano Satanás eta Karmengo Ama Birjinari. Euskaraz beste bi ezagutzen ditut: Ama Zorioneko eta Birjina guztiz ona.
R: Bai, erabili zuen euskara, Karmengo Amari deritzanean. Aramaion igan-deetako lehenbiziko mezan abesten zen San Luis Gonzagako himnoa ere euskaraz dago.

Nola definituko zenukete Goikoetxearen musika?

- S: Ondo egina, sakona eta abesteko esker onekoa. Apaindura gutxirekin, emaitza aberatsak lortzen zekien.
F: Hunkigarria, serioa, sakratua. Barneko muina mugiarazten du Goikoetxearen musikak; ez ordea gorputz atalik, barnean bilduta entzun behar baita.
R: Ene ustez, hoberen definitzen duena seriotasuna da. Baino aldi berean sakontasuna. Bihotzera heltzen den musika da. Ez da oso samurra ulertzeko, batez ere latinezko testuak ulertu gabe. Goikoetxeak bizi egiten zituen kantuetako esaera eta mezuak. Bazuen prestakuntza teknikoa baina horren gainetik zegoen prestakuntza izpirituala.



Floren Unzueta

Zer da bere lanetik gehien harritu zaituena?

- S: Ihardunean lortzen dituen emaitza sakonak. Horixe da ni harritu ez ezik hunkitu ere egiten nauena.
- F: Bere musikaren sakontasunak harritzen nau, batez ere. Bachek ere badu sakontasunik, baina diferentea da.
- R: Estilo oso bat da erakartzen duena. Ez da pieza bat edo bi interesanteak izan daitezkeela. Ez. Osotasunean zeharo garrantzitsua da Goikoetxea. Bere estiloa da. Eta interesarria da, estilo horretara egokitu direla gure ingurueta abesbatza asko, jende gaztearekin osatuak.

Emaidazue, musika sakroaren kontzertu baterako hautatuko zenuketen Goikoetxearen obraren programa.

- S: Ahots soilezko koroarentzat: Lamentatio Jeremiae, Miserere mei Deus eta Christus factus est. Ahots eta organorako: Meza, Te Deum laudamus, Edoctus autem, Salve (Ibabeko Andra Marirentzat idatzia), Ave María eta Tantum ergo 6. zenb. Ahots eta orkestrarako: Sol nagusian Kyrie (Aramaiorako 1899an idatzia) eta Beata viscera.

- F:** Salve, Ave María, Kyrie (Solean Meza), Tantum Ergo, Christus Factus. Lehen hiruak organorako komposatuak, azkena ahotsetaroko. Eta Tantum Ergo, ad libitum, hots organo edo organorik gabe interpretatzeko.
- R:** Miserere mei Deus ipiniko nuke, eta Christus factus est. Horiek biak ezin-bestekoak ditugu. Lau eta sei ahotsetara idatziak dira, Aste Santukoak baitira eta egun horietan ezin zitekeen organoa jo.

Batzuen ustez, Goikoetxea musikari serio eta xumea da; beste batzuen iritziz, solemne eta exekutatzeko zail samarra...

- S:** Nik garbi daukat nolakoa den Goikoetxearen musika. Lehen ere esan dut: ondo egina, sakona eta abesteko esker onekoa. Apaindura gutxirekin, emaitza aberatsak lortzen zekien.
- F:** Ez dut uste zaila denik. Salvea jotzen lehenik ondo aztertu behar duzu partitura baina behin ikasiz gero ez du apartako zailtasunik. Ave María-rekin ere gauza bera gertatzen da. Orokorrean Goikoetxearen musika ez da zaila organoan interpretatzeko.
- R:** Zaila exekutatzeko baino ongi prestatuta egon behar da Goikoetxearen zenbait obra interpretatzeko. Euskal Herrian bi Meza dira normalean erabiltzen direnak: lehenik Goikoetxearena, lau ahotsetara, eta jarraian Perossiren pontifikala. Perossik ahots mixtoekin jokatzen du.

Ezertan mimitu al zen gerorako Goikoetxea eta bere ikasle izandako goi mailako musikarien arteko harremana? Pentsatzen ari naiz, Nemesio Otañoren gisakoetaz...

- S:** Otañok Goikoetxea bizi zela eta heriotza inguruan interesa handia era-kutsi zuen; baina geroztik, berak goiko maila bat lortu zuenean, badirudi maisua ahaztu egin zuela. Zorionez, baziren beste ikasle edo adiskide batzuk, Goikoetxearen izena gorde zutenak: Patxi Viñaspre, Julio Valdés ...eta abar.
- F:** Julio Valdes loba kenduta, ez dut ezagutu Goikoetxearekin zuzeneko harremanik izan zuen inorekin, eta ez daukat iritzirik.
- R:** Nik ezagutu izan ditut hiru edizio desberdin, argitaletxe diferenterekin, Goikoetxearen Mezarako. Horrek esan nahi du gure musikaria hilda gero ere hazten jarraitu zuela.

Rafa Mendialdua



Ezagutu al zenuten aramaioarren bat Goikoetxea bera ezagutu eta haren gaineko iritzirik eman zizuena?

- S: Aramaion Doña Ánjela –Anjela Etxebarria– ezagutu genuen Goikoetxearen adiskide mina izan zena. Baita Roke Amilburu, Sabas-en semea. Sabas eta Bizentek batera ikasi zuten musika.
- F: Nire aitak askotan aipatzen zuen Goikoetxearen izena gure eskatzean, jan orduetan. Beraren ustez, Bizentek aitaren jokaera aldrebesaren ondorioa jasan zuen eta Aramaioko herriak ez zuen behar bezala ondratu.
- R: Nik ere ezagutu nituen Doña Anjela eta Doña Dolores, Sandalio Etxebarriaren arrebak. Piano bat zeukaten, orain nire etxean dagoena. Doña Anjelak gogoratzen zuen batez ere Goikoetxearen bizitza. Eta azpimarratu egiten zuen haurrekiko Goikoetxearen jarrera xumea. Doña Anjelak gurtu egiten zuen Bizente laguna. A! Eta behinola entzun nion Roke Amilbururi, Goikoetxeak esan ziola nola irakatsi behar zien umeei. Oker ez banago, Goikoetxeak Valladolidetik Aramaiora egindako bidai batean izan zen hori.

Julio Valdesekin ere harremana izan zenuen... Valdes hurbil edukitzeak Goikoetxearekin egotea ematen zuen, ezta?

- S: Dakidan armonia guztia –urtetan armonía irakaslea izan naiz– don Ju-liorekin ikasi nuen. Bere osaba aipatzen zuen bakoitzean, harengandik irtenda bezala geratzen zen entzuten genuena.
- F: Nik bere bizitzako azken bi urteetan ezagutu nuen. Bere gelara joan nintzen batzuetan eta, aramaioarra nintzelako nonbait, interesa zuen nik musika mundutik egin nezan. Behin, 1957 izango zela uste dut, berarekin nengoela Aita Jose Domingo de Santa Teresa karmeldar konpositorea etorri zen Valdes bisitatzaera eta obra berri bat ekarri zion Valdesek ikus zezan. Sacerdos et pontifex horietako bat zen eta Valdesi ez zitzaion gustatu nola zegoen armonizaturik. Gogoratzen dut nahiko haserre zeudela biak eztabaidan. Karmeldarraren danbateko batekin amaitu zen bilera. Nik artean ez nuen armonia ezagutzen eta bi musikarien hizkera arrotza egiten zitzaidan.
- R: Julio Valdes espezial samarra zela uste dut. Oso musikari bikaina genuen. Apaizgaitegian armoniako klaseak ematen zituen. Bainan erreferentziaz bakarrik hitz egin dezaketen arren, ez zait iruditzen osaba bezain irekia zenik.

Zer dauka Aramaiok honenbeste musikari on sortzeko?

- S: Izan da mendetan giro aproposa musikarako. Hori begi bistakoa izan dugu gure haurtzaroan, eta lehenago ere sortu dira musikari onak. Organjo joleekiko udal hitzarmenak beharkizun batzuk jartzen zizkien titularrei eta horrek aldeko eragina zeukan musika sortzeko orduan.
- F: Aramaiok suerte on bat izan du. Beti egon izan da herrian pertsona- ren bat musika irakasteko prest. Baltasar Agirre, Juan Amilburu, Roke Amilburu, Florencio Ugarte eta abar. Gure sasoian apaiz bat izan genuen, Fidel Ibargutxi, eta haren ikasleak gara orain musikan aritzen garenok. Bainan beste faktore batzuk badaude. Aramaiok izan ditu zenbait organista on. Eliza nagusian ezagutzen dugun organoa 1831koa da, Amezua bat, baina hondatu egin zen eta 1860 inguruan klabikordioa ekarri zu- ten Santa Ana baselizatik. Harekin jo eta ikasi zuten askok, aharik eta XX. mendearren hasieran parrokiara Sastiñako armoniuma aldatu arte. Oker ez banago egun sakristian dagoena da. Goikoetxearen jaiotzako mendeurrenra 1954an izan zenean Fidel Ibargutxik konpondu nahi izan

zuen Amezua organoa baina ez zuen finantzaziorik aurkitu. Geroago, 1978an Arrasateko Kontzezinoko mojek komentu zaharra bota zutenean hango armoniuma Ibarrako elizarako lortu zuen Jesus Mari Elejalde. Eta azkenik, 2000 urte inguruan, organoa martxan jarri ahal izan zen, eraberritze lan sakon bati esker.

Aramaion baliabide musikalak izan dira XIX. mendetik. Jakin badakigu ez dela izan lehen mailako herria musikari profesionalentzat baina izandako maisuekin uzta ona atera da. Azken aleak izan gara Sabin Salaberri, Benjamin Mendialdua, Rafa Mendialdua, Biktor Mendialdua eta neroni. Atera kontua: Benjamin, Ciudad Rodrigoko Katedralaren Kapera Maisua izendatu zuten 1960 inguruan, eta Rafa 1978tik Gasteizko Katedralaren Kapera Maisua da. Bai, Aramaioko giroak musikari trebeak sorrarazi ditu.

- R:** Benjamin, Sabin, Floren, ni ... Fidel Ibargutxiren ikasleak izan ginen. Lehenago izan ziren beste musikari interesgarriak ere, Sabas Amilburu adibidez. Baina ezin ditugu ahaztu emakumeak. Horra hor, Asun Salaberri, Irene Madinabeitia eta Maria Teresa Errasti, Induspe baserriko alaba. Hiruak mojak dira. Iruditzen zait, justiziakoa dela hemen aipatzea emakume musikari horien lana. XVIII. mendeko Zameza musika-sendia-ren ibilbidea ere musika onaz dago markatuta eta euren maisutasun eta aramaioartasuna aldarrikatzeko ordua da.

Eta hain zuzen, non eta nola lortu zituen Goikoetxeak musikari buruzko ezagupideak?

- S:** Hau da nik sarritan egiten dudan galdera. Txikitán Aramaion bertan ika-si zuen musika pixka bat, baina ez gehiegi. Gero, Gasteizen batxilergoa egitean, hor hemen landu zuen baita musika. Lekeitio idatzi zituen bere lehenengo konposaketak, ez goi mailakoak baina bai kontutan izatekoak; badirudi Velasco organo jotzaileak lagundu ziola lan horretan. Valladolideko katedraleko Kapera Maisu oposizioetarako, Tolosan sakondu zuen Felipe Gorritirekin armonia eta kontrapuntua. Baina ez denbora luzean. Gero, Valladoliden, klasikoak estudiatuz, joan zen gero eta gehiago bere maisutasuna lortzen. Hau dela eta, nire ustez, aholku txiki batzuekin lagunduta, autodidakta izan zen.
- F:** Irakasle onak izan zituen, bakoitzaz bere neurrian. Aramaiotik Valladolideainoko ibilbidean Goikoetxeak dena atera zien musika maisuei.

R: Aramaion zerbait bazegoen, musika mugimenduari eragiten ziona. Sasoi hartan musika banda ere bazen. Organo joleak beti zituen bere ikasleak, Udalarekin lotzen zuen lan hitzarmenak hala behartuta. Goikoetxearen kasuan, esango nuke, bada beste osagai bat: bere sentimendu erlijiosoa. Musika egiten du barne bizitzak eskatuta. Nolabait, bere burua prestatu zuen Goikoetxeak musikarako baina sinesmen erlijiosoak eraginda.

Zer egin daiteke Goikoetxearen musika eta izana (izenak irabazia dauka) aramaioarrongan errotuago egon dadin?

S: Zein galdera ederra! Nik esango nuke urteroko egitaraua eskaini beharko litzatekeela herri mailan. Urtero obraren bat emango balitz, urrats handia izango litzateke. Horrek lagunduko luke mendetako musika giroa berreskuratzen eta, agian, hobetzen. Goikoetxeari ezin dakioke urte bakar bateko programazioa eman eta gero laurogeita hemeretzi urtetako idortasuna. Asmatu behar da formula egokia soka luze eta jarraikia izan dadin.

F: Nik uste dut gauza politak egin daitezkeela. Adibidez, Goikoetxearen partitura guztien behin betiko bilduma lortu beharko litzateke. Eta, bestalde, abeslari eta musikari gazteentzat toki aproposa prestatu beharko litzateke, entsaioetarako eta Aramaioko musika maisuen obrak ikasteko.

R: Goikoetxearen obra osoa editatzea ez litzateke gaizki eterriko, baina hori ezina bada, zergatik ez prestatu bilduma bat? Behintzat, herriko jendeak eskura eduki dezan Goikoetxearen oinarritzko obra. Hamabi bat kantarekin nahikoa izango litzateke, abesbatzeturako.

Argitaratutako musika lanak

Obra musical editada⁶²

- Kalenda para la vigilia de Navidad* (1894). Música sacro-hispana, Año IX, nº 11, noviembre de 1916
- Ave, verum corpus* (1898). Tesoro Sacro Musical, mayo-junio de 1954
- Missa pro dominicis adv. et quadr* (1901). Azcano y Mar, Bilbao
- Misa ferial para adv. y cuar.* (1900-1903). Música sacro-hispana, año VIII, nº 2, febrero de 1915
- Credidi* (1903). Música sacro-hispana, año X, nº 2, febrero de 1917
- Benedictus* (Adaptación del anterior). Seminario de Vitoria, 1950
- Missa in honorem Inmac. Concep. B. M. V.* (1903). Ildefonso Alier, Madrid; Erviti, San Sebastián.
- Salve Regina* (1905). “Ibabeko AndraMariari”. Seminario de Vitoria, 1950.
- Miserere mei, Deus* (1906). Seminario de Vitoria, 1947.
- Christus factus est* (1906). Seminario de Vitoria, 1947.
- Karmengo Amari. A la Virgen del Carmen.* Música sacro-hispana, julio de 1915
- Miserere mei, Deus* (Dos fabordones sobre el salmo 50). Academia San Gregorio Magno, Seminario de Vitoria.
- Toni comunes misae.* Musical Emporium, Barcelona.
- A Cristo Rey* (1910). Música sacro-hispana, julio de 1915
- Tantum ergo nº 5 “More hispano”* (?). Tenor, 3 v. m. y órgano. Lazcano y Mar. Bilbao
- Tantum ergo nº 6.* 4 v. ig. Academia San Gregorio Magno, Seminario de Vitoria.

⁶² Kapitulu hau Sabin Salaberriren laguntza paregabeari esker osatu dut / Este capítulo está realizado con la aportación inestimable de Sabin Salaberri.



Partitura, 1908

Tantum ergo nº 7 (1910). (El manuscrito original está en sol menor; la partitura editada en fa # menor). Música sacro-hispana, diciembre de 1913

Langüentibus (1910). Música sacro-hispana, octubre de 1916.

A las ánimas benditas. Jaculatoria por las benditas ánimas. (La primera es una versión en lengua castellana de Langüentibus)

Homenaje al Sgdo. Corazón de Jesús

Himno de entronización. Cancionero del Padre Planas

Jaculatoria al Sgdo. Corazón de María. Cancionero del Padre Planas

Toda hermosa eres, María. Cancionero del Padre Planas

Perdón, oh Dios mío. Música sacro-hispana ¿?

Officium defunctorum (1912). Erviti, San Sebastián

Altísimo Señor (1913)

Santo Dios. Repetida 4 veces, 2 con orquesta y otras 2 con órgano. Editada parcialmente en 1915

O Cor Jesu. Tesoro Sacro Musical, mayo-junio de 1954

Ave María. Seminario de Vitoria, 1950

Lamentatio Jeremias Prophetae (1914). Seminario de Vitoria, 1947

Goikoetxearen musika
diskoan, 1951ean
Música de Goikoetxea
en disco, 1951



Santo Dios (1915). Tres versiones. 4 v. m. y órgano

Missa pro defunctis (1915). Seminario de Vitoria, 1948

Misa en honor de la Inmaculada Concepción. (Con quinteto de cuerda por Cándido Alegría). Diputación Foral de Álava, 1974

Argitaratu gabeak / Inéditas

Misa de Requiem (1882). 4 voces y órgano

Himno a San Francisco de Asís (1885). 3 voces y órgano

Vexilla Regis (1886). 4 voces y banda de música

Mandatum novum (1886) 3 voces, órgano y banda de música

Miserere. 3 voces y banda de música

O salutaris Hostia (1889). 5 voces y órgano

Salve Regina. (1889). 4 v y orquesta

O admirabile. 4 voces y orquesta

O Jesu mi. Archivo parroquial de Lekeitio. No consta la firma de Goikoetxea, sí su estilo.

Sin fecha de composición

Salve Regina. En Si bemol. Para 6 v. m. y órgano

Gozos a San Antonio. Coro y dos estrofas a 3 y 2 voces y sólo.

Canto al Sgdo. Corazón. Tenor, 3 v. m. y órgano

Himno a San Pedro Regalado. Coro y estrofa a 4 voces

Gozos a San Francisco de Borja. Coro a 3 voces y estrofa a 4 voces

Aspiraciones al Sacratísimo Corazón de Jesús. Unísono y 3 voces con cuarteto u órgano

Ave, verum Corpus. 4 v. i.

Tantum ergo nº 1 en Sol mayor. 4 v. m. y órgano

Tantum ergo en Fa mayor. 3 v. m., flauta, 2 violines y órgano

Tantum ergo en La. 6 v. m. y orquesta

Tantum ergo. 3 v. m. y órgano

Tantum ergo. 5 v. m. y órgano

Tantum ergo nº 5. More hispano. 3 v. m. y órgano

Tantum ergo nº 6. 4 v. gr. y órgano

Tantum ergo nº 7. 4 v. m. y órgano // 3 v. bl. y órgano

Ave Regina coelorum. 4 voces y órgano

Alma redemptoris. Solo y coro a 4 voces y órgano

Libera me. 4 voces mixtas y órgano

Ne recorderis. 4 v. m. (De una obra de Cristóbal de Morales. Dedicada a Sabas Amilburu)

Mandatum novum. 4 v. m.

Ad mandatum. 4 v. m. y órgano

Responsorio III de Navidad. Coro mixto y órgano. Adaptación de la obra del mismo título para coro mixto y orquesta

Nona de la Ascensión. 4 v. m. y órgano

Gabon abestia. Coro mixto y órgano. Adaptación (¿por el P. Otaño?) del nocturno de Navidad Beata víscera, para coro mixto y orquesta

Ad completorium. Cuatro salmos a fabordón a voces y órgano

Hymnus de communi virginum. 3 voces y órgano

Commune confessorum. Fabordones a 4 voces y órgano

In festis B. M. Virginis ad Vesperas. Fabordones a 3 voces

Salve Regina. Borrador incompleto a lápiz

Misa de Adviento. 4 voces y fagotes



Gasteizko Apaiztegiko Schola Cantorum 1956an
La Schola Cantorum del Seminario de Vitoria-Gasteiz, en 1956

Misa de Requiem. 4 v. m. y orquesta

Ama zorioneko. Coro popular, coro a 3 v. m., solo de tenor y órgano. Escrita para Lekeitio

Loreil abestija. Presentada por “Ibarra tar B. Jauparia” y premiada en un concurso en Bilbao

Birgiña guztiz ona. Coro popular y órgano

Himno a Cristo Rey. Coro popular y órgano / Coro popular y banda de música.

Para una peregrinación de “Luises” a Loyola, con letra en euskara

Con fecha de composición

Himno a San Francisco de Asís (1885). 3 v. m. y órgano

Vexilla Regis (14.06.1886). 4 v. m. y banda de música

Salve Regina (03.1890). 5 v. m. órgano y orquesta

Credo para la Misa de Ch. Gounod (1889). 5 v. m. y órgano

Beata Dei Genitrix (1891). Responsorio de Navidad. 4 voces y orquesta

Sancta et Inmaculata (1891). Responsorio de Navidad. 4 voces y orquesta

Misa para adviento y cuarentena (1891). 4 v. m. y fagotes

- Seis responsorios de Navidad* (1891-92). Coro y orquesta
- O, Cora moris* (1892). Tenor, coro y órgano // Tenor y orquesta
- O sacram convivium* (1892). Solo de bajo, 4 voces y orquesta
- Guztiok Luis Gonzaga* (1902). Coro popular y órgano. (Para los “luises”: de Lekeitio)
- Hodie nobis coelorum Rex* (1893). Responsorio de Navidad. 4 voces y orquesta
- Hodie nobis de coelo* (1893). Responsorio de Navidad. 4 voces y orquesta
- Verbum caro* (1893). Responsorio de Navidad. 4 voces y orquesta
- Beata viscera* (1893). Responsorio de Navidad. 4 voces y orquesta
- Tota pulchra* (1894). 4 v. m. y órgano // 4 voces y orquesta
- Oremus pro pontífice* (1904). 3 v. ig. y órgano
- Domine, ne in furore* (1894). 4 voces solas. (“Para los funerales de Zorrilla”)
- Dies irae* (1895). Dos coros y canto llano
- Tantum ergo* (1895). 3 voces con cuarteto
- Misa de Requiem* (1896). 4 v. m. y orquesta
- Tantum ergo en Sol* (1898). Coro y orquesta
- Adoro Te devote* (Rithmus S. Thoma Aquinatis ad Sacram Eucharistiam) (1898). 4 v. m. y órgano // 4 voces y órgano
- Himno de procesión al Sagrado Corazón de Jesús* (1899). 4 voces y banda de música
- Misa en Sol* (1899). Para las Fiestas Euskaras de Aramaio. El Kyrie está completo; en Gloria la primera página tiene completa la parte de la orquesta; el resto contiene la parte de coro con acompañamiento de órgano.
- Himno a Santo Tomás* (1900). 4 voces y piano-armonium
- Himno a Juana de Lestonac* (1900). Coro y estrofa a 4 v. bl. (“Una joya”, según Otaño)
- Misa para domingos de Adviento y Cuaresma* (1901). Cuatro voces solas
- Misa para Adviento y Cuaresma* (1891). 4 v. m. y fagotes (sin órgano)
- Responsorio de Navidad. 2º Nocturno* (1891). Coro y orquesta
- Maitines de Navidad. 1r Nocturno. Responsorio III* (1892). Coro y orquesta
- Cantata en honor de León XIII* (1903). Dos coros
- Oremus pro Pontifice nostro* (1903). Publicada en 1950 como “Ave María”
- In Ascensione Domini. Ad nonam* (1904). 4 v. m. y órgano
- Miserere mei Deus* (1906). Con las dos versiones del “Benigne fac”
- Al Sgdo Corazón de Jesús. Himno de procesión* (1905). Para coro y banda de música

Ave Regina caelorum (1909). 4 v. m.; órgano “ad libitum”

Franciscus. (Edoctus autem) al Seráfico Patriarca San Francisco para el Congreso Terciario Franciscano de Santiago de Compostela (1909). Adaptado también para O sacram convivium. 4 voces y órgano

Letanía lauretana (1912). Dos modelos: Coro mixto y órgano // 4 voces y orquesta

Te Deum laudamus (1913-14). Dos coros de 4 voces mixtas y órgano

Litaniae lauretanae (1914). 4 v. m. y órgano

Misa ferial a 4 (1915). Música sacro hispana. El “Et incarnatus est” tiene al final esta nota del propio V. G.: “De autor ignorado, del libro ¿...?? (ilegible) de esta Catedral de Valladolid”

Heriotzaren mendeurreneneko bertsoak

Manex Agirre bertsolari aramaioarrak ondoko bertsoak bota zituen 2016ko apirilaren 16an, Mendeurreneneko ospakizunetako lehen egunean. Larraitz Arriolabengoak lagundu zion pianoan.

*Harriak ez du doinurik sortzen
Harriak ez du kantatzen
Harriak ez du armonia bat
Airean utziko, ozen
baina harrizko irudi batek
zeozer du ordezkatzen
Bizente zenak, gizon gazte hark
Izan zuen nahikoa sen
Isiltasuna apurtu zuen eta
ederra izan zen.*

*Egin mende bat atzera eta
Irudimena zabaldu
Bizentek oingo Kukuenean
Kantu-kantari dihardu
Balneariora zetozen haiiek
Entretenitzen, ondradu
Aitak protesta eginagatik
Kantua ez zen hor galdu
Erraietatik zuzen badator
Atera egin behar du.*

*Azkuek hona lore jokoak
Ekarri zituenean
Pentsatu zuen Goikoetxeak
Meza bat konposatzean
gero udalak proposamena
ezeztatu bat-batean
nahiz ta herriko plaza eskaini
uste dut nire artean
Ez geniola askorik eman
Eman zigunan trukean*

*Eliza berez ez da preseski
Berrikuntzara emana
Baina Bizentek berritu zuen
Eliz-musikaren xarma
Bere izenak bide egin du
Europa zaharrean barna
ausardiaren ondorio da
berrikuntzaren afana
beraz ausarta izatea da
Estimatzen diodana.*

*Umetan zenbat jolas ta txantxa
Estatua hau medio
Memoriaren harri bat zenik
Ez genekien propio
Ta azkenean herriak bere
Azala garbitu dio
Harriak ez du melodiarik
Ez du hortarako balio
Baina hurbildu bere ondora,
Musika apur bat dario.*

Bizente Goikoetxeari, bere heriotzaren mendeurrenean

Bizente Goikoetxearen ekarpenak oihartzuna du oraindik ere aramaioaren artean. Beste froga bat bezala, orri hauetara ekarri nahi izan dut Jesus Zabala bertso zaleak Aramaioko musikari unibertsalaren ohorez konposatutakoa. Liburuaren irakurketa egin ostean denok kanta dezagun:

Doinua: Habanera

*Hemeretzi gizaldiko
berrogeita hamalauean,
Goikoetxea munduratu
apirilak bostean.
Abade egin aurretik
musikara murgildu zan,
Valladolid-era joanda
maixu egin zan katedran,
eliz musika erreforman,
Vatikanoaren aurrean,
bere musika entzun da
gehien mundu zabalean,
ohore handiaz dago
Aramaioko historian,
herrien esker zintzoa
heriotzaren gizaldian.*

